

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

4724

EBAZPENA, 2020ko urriaren 28koa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, Euskadin dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketak egiteko laguntzen programaren (PREE Programa) oinarri arautzaileak onartzen, deitzen eta argitaratzen dituena.

EEE Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa da, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendekoa, eta energia aurrezte eta energia-eraginkortasuna, energia-baliabide berriztagarriak, energia-dibertsifikazioa eta energia-azpiegituren sustapena bultzatzeko jardunak bete behar ditu Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eremuan.

Ildo horretan, EEE hainbat ekintza garatzen ari da 2030eko Euskadiko Energia Estrategian (3E-2030) bildutako helburuak betetzeko. Jardun horien artean, aipatzekoa da zenbait laguntza programa abian jartzen dituela, energia-eraginkortasuna sustatzeko eta energia berriztagarriak aprobetxatzeko jarduera-sektore guztietan.

Abuztuaren 4ko 737/2020 Errege Dekretuaren bidez, dauden eraikinetan energia-birgaitzeak egiteko jarduketei begirako laguntzen programa arautzen duena eta programa horren laguntza zuzenak autonomia erkidegoei eta Ceuta eta Melillako hiriei arautzen dituena, Estatuko Boletín Ofizialean argitaratua, 212 zenbakian, 2020ko abuztuaren 6ko datarekin, haren bitartez laguntza zuzenak emateko oinarri arautzaileak ezarri ziren, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22. eta 28. artikuluen arabera, Dirulaguntza Orokorrez diharduena, dauden eraikinetan energia-birgaitzeak egiteko jarduketetarako.

737/2020 Errege Dekretuaren 6. artikuluen 2. atalean xedatutakoari jarraituz, EEEko zuzendari nagusiak Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía (IDAE) jakinarazi zion formalki onartzen zuela era espresuan eta zalantzarik gabekoan Euskal Autonomia Erkidegoari emandako dirulaguntza, aipatutako Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik, zeina 14.748.000 eurokoa baita.

Beraz, laguntzen programa hau 737/2020 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera diseinatu da eta honako helburu nagusi hau du: energiaren azken kontsumoa murrizteko neurriak sustatzea eta energiarekin, klimarekin eta susperraldi ekonomikoarekin zerikusia duten helburuak betetzen laguntzea, eta horretarako, dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketak egingo dira. Era horretan, energia eraginkortasunaz diharduen 2012ko urriaren 25eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/27/UE Zuzentarauaren 7. artikuluan ezarritako energiaren aurrezpenaren inguruko helburua betetzen laguntzen da; baita bizitegi eta merkataritza eraikinetan birgaitze sakona eta errentagarria egiteko epe luzeko estrategia abian jartzen ere, higiezinaren parkea energia errendimendua hobetzeko xedez eta energia kontsumoa gutxitzeko, aipatutako Zuzentarauaren 4. artikuluan aipatzen den bezala.

Adierazitako guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EEEren zuzendaritza-organoen eginkizunak arautzen dituen otsailaren 3ko 10/2015 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik, martxoaren 5eko lehengo 64/1985 Dekretua bigarengoz aldatzen duena, Euskadin dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketak egiteko

laguntzen programari (PREE Programa) dagozkion oinarri arautzaileak onartzea eta deialdia egitea. Programaren edukia ebazpen honekin batera doa, I. eranskin gisa.

Bigarrena.– Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Lege Dekretuaren 49.2 artikularekin bat etorriz, 2020ko Euskadin dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketak egiteko laguntzen programari (PREE Programa) dagozkion oinarri arautzaileak onartzen dituen ebazpen hau, oso-osorik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen kontra, zeinak bide administratiboari amaiera ematen baitio, aukerako berraztertze errekurtsua jar daiteke EEEko zuzendari nagusiaren aurrean hilabeteko epearen barruan, ebazpena EHAAr argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena EHAAr argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Bilbao, 2020ko urriaren 28a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
IÑIGO ANSOLA KAREAGA.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

Euskadin dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketak egiteko laguntzen programa (PREE programa)

Oinarriak

Energiaren Euskal Erakundea
Urkixo zumar. 36-1. solairua
48011 Bilbao
Tel.: 94 403 56 00



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

Euskadin dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketak egiteko laguntzen programa (PREE programa)

1. Programaren xedea eta laguntzaren izaera.

1.1. 2020ko abuztuaren 6ko 212. zenbakiko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzearekin batera, *abuztuaren 4ko 737/2020 Dekretuak* (aurrerantzean «**737/2020 ED**») *dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketak egiteko laguntzen programa arautzen du eta programa honetako laguntzak autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoei zuzenean ematea arautzen du*, eta dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketetarako eraikin horiek azken hartzaileei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen ditu (aurrerantzean, «**PREE programa**»).

737/2020 EDak zioen azalpenean adierazten duenez, Europako araudian ezarritako ingurumen- eta energia-helburuak lortzeko laguntzea du helburutzat, dauden eraikinen zaharberitze-jarduketak eginez, eraikin horien erabilera eta eraikinen titularren izaera juridikoa edozein izanda ere, azken energia-kontsumoa eta karbono dioxidoko emisioen murrizketa bultzatuko dutenak, energia-aurrezpenaren bidez, energia-efizientziaren hobekuntzaren bidez eta energia berriztagarrien aprobetxamenduaren bidez, 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren 7. artikulua ezartzen duen azken energia-kontsumoa murrizteko helburuak lortzeko lagunduz.

Aipatzekoa da, gainera, 737/2020 EDaren bidez dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketan egikaritzapena sustatzera zuzendutako laguntza-programa baten deialdia justifikatzen duten arrazoi eta helburuak erabat lerrokatuta daudela Eusko Jaurlaritzaren Energia Politikaren helburuekin, hau da, 2030erako Euskadiko Energia Estrategia dokumentuan (3E2030) gauzatutakoekin. 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren misioa, beharrezkoa den bultzada publikoaren bidez, energia-kontsumoan efizientzia gehitzekoa da eta, horrekin batera, energia-sistema lehiakorrago, jasangarriago eta seguruago bat lortzea, ingurumen-inpaktua gutxituenez, kontsumorako edo produktiorako energia gutxiago beharkoenez, eta kanpo energia-baliabideekiko dependentzia murriztukoenez. Estrategia beraren barruan jarduketa-ildo konkretu bat (L3) biltzen da, eta ildo horren bidez ezartzen dira dagozkion neurriak energiaren kontsumoa murrizteko eta eraikinetan eta norberaren etxean energia berriztagarrien erabilera gehitzeko.

1.2. Aipatutako 737/2020 EDaren bidez, adostu da PREE Programako laguntzak zuzenean ematea autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei, banaketa-irizpideei jarraikiz, baita dagozkion funtsen ondoriozko banaketa jarduketa diruz lagungarriak finantzatzeko ere, 300 milioi euroko zenbatekoaz, dekretuaren II. eranskinean finkatutakoari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasurako 14.748.000 euroko zenbatekoaz zehazki.

Horrenbestez, Euskadin dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketetarako laguntzen-programarako - PREE programara (aurrerantzean «**Laguntza-programa**») bideratutako hornidura ekonomikoa 14.748.000 euro da, Energiaren Euskal Erakundearen (aurrerantzean «**EEE**») aurrekontuetan ezarritako dagokion kredituaren arabera. Behin dagozkion zeharkako kostuak kenduta (% 3,6) eta % 20ko erreserba eginda Eusko Jaurlaritzak burutuko dituen zuzeneko inbertsioak egiteko, 737/2020 EDan ezarritakoari jarraikiz, laguntzen azken hartzaileei bideratutako gehieneko zenbatekoa **11.267.472 euro** izango da.

1.3. Laguntza programa honen barruan ematen diren dirulaguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzat hartuko dira.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

- 1.4.** Laguntza-programa hau zein programa aplikatuz ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira barne-merkatuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 107. artikuluko 3. zenbakian xedaturik dagoenaren arabera, eta salbuesirik daude tratatu bereko 108. artikuluan Batzordeari jakinarazteko ezarrita dagoen betebeharririk.

Estatuaren dirulaguntza politiken oinarritzko lanabesa da Salbuespen edo Exentzio Erregelamendua, Europar Batzordeak barne-merkatuarekin bateragarriak diren ustezko dirulaguntzak identifikatzen dituen neurrian, alde aurretik baimena zertan eman gabe. Era horretan, ustezko dirulaguntza horien legezketasuna soil-soilik Erregelamenduaren eskakizun materialak betetzearen eta izapide edo tramite formal batzuk aurrera eramatearen mende dago. Salbuespen edo Exentzio Erregelamenduak –2014ko uztailaren 1etik aurrera indarrean dagoenak– jakinarazpen-salbuespena xedatzen du hamahiru dirulaguntza kategoriatarako; gainera, kategoria horietako bakoitza baimendutako erregimen ugarritan azpizatitu edo banatzen da. Salbuespen edo Exentzio Erregelamenduak eskualde-helburua duten dirulaguntzak babesten ditu, baita ETEei eman beharreko laguntzak, ETEak finantzaketara iristeko laguntzak, eta ikerkuntza, garapen eta berrikuntzaren aldeko laguntzak ere.

Laguntza-programa honetan jasotako laguntzak, oro har, Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren eremuan sartzen dira (aurrerantzean, «**651/2014 Erregelamendua**»), zeinaren bidez laguntza kategoria jakin batzuk merkatu erkidearekin bateragarriak direla adierazten den, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluko aplikatuz (EBAO 2014 L 187). Horri dagokionez eta 651/2014 Erregelamenduaren 11. artikuluan a) letran ezarritakoa betez, Estatuak 2020ko irailaren 24an igorri zion Europako Batzordeari 737/2020 Errege Dekretu bidez araututako laguntza-neurriari buruzko informazio laburtua (SA.58743 2020/X).

Horrenbestez, enpresak diren edo jarduera komertziala edo merkataritza-jarduera garatzen duten azken hartzaileek, eta estatu-laguntzen araudia aplikatzeko bazeaie, 651/2014 Erregelamenduan ezarritako eskakizun eta mugen mende egongo dira energia-efizientziako neurrietarako eta iturri berriztagarrietatik datorren energia sustatzeko inbertsioak egiteko.

- 1.5.** Laguntzen izazera pizgarria kontuan izanda, laguntzaren eskaeraren erregistro-dataren ondoren hasitako laguntzen azken hartzaileen jarduketak baino ez dira onartuko, eta ez da hautagarritzat hartuko aurretik fakturatua izan den jarduketari buruzko ezin kostu, alde batera utzi gabe eskaera aurkezteko edo dagozkion inbertsioak burutzeko beharrezkoak diren jarduketei dagozkien kostuak, hala nola proiektua, memoria teknikoak, ziurtagiriak eta abar, diruz lagungarritzat hartu ahalko direlarik, alde aurretik fakturatuak izan badira ere, betiere prestakuntza-jarduketa horiek 737/2020 EDa indarrean hasi den dataren (2020ko abuztuaren 7a) ondorengo data batean hasi badira.
- 1.6.** 737/2020 EDaren 10. artikuluan ezartzen denez, Eskualde Garapenerako Europako Funtzak laguntza eskaintzen du programa honen finantzaketa gauzatzeko, 2014-2020 aldiko Espainiako Eskualde anitzeko Programa Operatiboaren barruan, jarduketak programa horretan finantzagarritzat hartutako jarduketei erantzuten dien kasuetan. Horrela, programako jarduketan Eskualde Garapenerako Europako Funtsekin batera finantzatu ahalko diren neurrian, aplikatzekoak izango dira: Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 zenbakiko Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 17koa, zeinaren arabera xedapen erkideak eta Eskualde Garapenerako Europako Funtzari, Europako Gizarte Funtzari, Kohesio Funtzari, Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtzari, eta Itsas eta Arrantzako Europako Funtzari buruzko xedapen orokorrak ezartzen diren, eta indargabetzen den Kontseiluaren 1083/2006 zenbakiko Erregelamendua; Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1301/2013 zenbakiko Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 17koa, Eskualde Garapenerako Europako Funtzari buruzkoa, zeinaren arabera indargabetu egiten diren 1080/2006 zenbakiko Erregelamendua; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1299/2013 zenbakiko Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 17koa, baita esparru horretan osatzen edo ordeztzen duen beste edozein araudi ere.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

2. Laguntzen azken hartzaileak.

2.1. Egoitza fiskala betiere Espainian badute eta energia-birgaikuntza egiten zaion egungo eraikina EAEn badago, laguntza-programaren deialdiko dirulaguntzak baliatu ahalko dituzte oinarri hauetan eta 737/2020 EDan adieraziko irizpideen arabera:

- a) Edozein erabileratarako diren egungo eraikinetako jabeak diren izaera pribatu edo publiko pertsona fisiko edo juridikoak.
- b) Etxebizitza-erabilerako bizitegi-eraikinetako jabeen erkidegoak edo jabeen erkidegoen elkarteak, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21ko 49/1960 Legearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- c) Elkartutako eraikinen jabe diren jabeak, Kode Zibilaren 396. artikuluan ezarritako eskakizunak biltzen dituztenak eta Jabetza Horizontalaren dagokion titulua sinatzen ez dutenak.
- d) Enpresa ustiatzaile, errentatzaile edo emakidadunak, jabetzarekin epe luzerako indarreko kontratu bidez kondizio hori egiaztatzen dutenak, kontratu horrek ahalmen espresua emango dielarik programan barne hartu beharreko jarduketako zaharberritze-obrei ekiteko.
- e) Energia-zerbitzuetako enpresak, edo energia-efizientziari buruzko 2012ko urriaren 25eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/27/EB Zuzentarauaren transposizioa egiten duen otsailaren 12ko 56/2016 Errege Dekretuan definitutako energia-zerbitzuen hornitzaileak. Zuzentaru horren arabera aldatzen dira 2009/125/EE eta 2010/30/EB Zuzentaruak, eta indargabetzen dira 2004/8/EE eta 2006/32/EE Zuzentaruak, energia-auditoriei, zerbitzu-hornitzaileen eta energia-auditoreen akreditazioari eta energia- hornikuntzaren efizientziaren sustapenari dagokienez. Onuradun izateko, jabetzarekin horretarako ezarrita duten kontratuaren arabera jardun beharko dute enpresa horiek eta oinarri hauetan bildutako jarduketaren tipologiaren batean barne hartutako inbertsioak burutu, energia-zerbitzuetako enpresa gisa izandako jarduketa eta egindako inbertsioa akreditatuta beharko dutelarik.
- f) Toki-erakundeak, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 3. artikulua arabera, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.2 artikulua erreferentzia egiten dien administrazio publikoen arteko edozeinetako sektore publiko instituzionala.
- g) Energia berriztagarrien erkidegoak eta herritarren energia-erkidegoak, iturri berriztagarrietatik datorren energiaren erabileraren sustapenari buruzko 2018ko abenduaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/2001 Zuzentarauaren arabera, eta, hurrenez hurren, 2012/27/EB Zuzentaruak aldatzen duen eta elektrizitatearen barne-merkatutarako arau erkideei buruzko 2019ko ekainaren 5eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019/944 Zuzentarauaren arabera, baita energiaren alorrean eta susperraldi ekonomikorako beste esparru batzuetarako neurriak onartzen dituen ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren 4. artikulua arabera ere.

2.2. Horrekin batera, honako baldintza hauek ezartzen dira laguntzen azken hartzailearen kondizioa lortzeko:

- Laguntzen azken hartzaileak pertsona fisikoak direnean, dela indibidualki, dela 2.1 oinarritzko b) edo c) letretan aurreikusitako erkidego bateko edo jabeen elkarte bateko kide direnean, nazionalitate espainola izan beharko dute, edo Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko Estatu kideetako batekoa edo Suitzakoak. Europako Erkidegoak ez diren atzerriarren kasuan, Espainian izan beharko dute legezko bizilekua.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

- Azken hartzaileak pertsona juridikoak badira, behar bezala eratuta daudela akreditatu beharko dute, aplikatzekoa den araudiaren arabera.
- Nortasun juridiko propiorik ez duten erakundeen kasuan, jabeen erkidegoen kasuan izan ezik, legearen arabera eratutako elkarte gisa eta indarreko estatutuak dituztela eratu beharko dira, indarreko legeriak onartzen duen edozein formaren arabera, eta eskaeran espresuki jaso behar da entitatearen osaera eta kideetako bakoitzaren partaidetza-ehunekoak. Proiektuaren eta inbertsioaren egikaritzapen totalaren erantzukizuna elkarte osoari dagokio, eta elkarteak berak hautatu eta ahalmenak eman behar dizkio ordezkari bati laguntza-eskaera tramitzatzeko, inbertsioaren justifikazioa egiteko, eman daitekeen laguntza jasotzeko eta kide bakoitzari banatzeari ekiteko.

Edozein kasutan ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatutakoa bete behar da, eta bereziki lege horren 11.3 artikuluan ezarritakoa.

- 2.3.** Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategiena onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997ko Legegintzako Dekretuaren (aurrerantzean «**1/1997 Legegintzako Dekretua**») Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, honako pertsona fisiko hauek izan daitezke onuradunak: dirulaguntza emateko eskatzen diren egoeran daudenak, edo oinarri hauetan eta dirulaguntzen deialdian aurreikusten diren baldintzak betetzen dituztenak.

Pertsonak edo erakundeek, azken hartzaileen izateari begira, debekurik ez dutela justifikatzeko honako era honetan egin daiteke: Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.7 artikuluan eta 1/1997 Dekretu Legegilearen 50.6 artikuluan aurreikusten diren prozeduren bitartez.

- 2.4.** Laguntzaren azken hartzailetzat hartzeko ezinbesteko baldintza izango da, dirulaguntza eman aurretik zein dirulaguntza emanez gero egoera edo baldintza horretan jarraitu ahal izateko, zergen inguruko betebeharrak eguneratuak edukitzea eta, hala badagokio, baita dirulaguntzak itzuli behar izateagatiko betebeharren ordainketak ere.

- 2.5.** Honako hauek ezin izango dute laguntzen azken hartzaile kondizioa izan:

- a) 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.5 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluan adierazten diren egoeraren batean dauden eskatzaileak, baita zigortuta daudenak, administratiboki edo penalki, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galarazita dutenak, edo debekuren bat indarrean dutenak eta horretarako gaitasunik gabe uzten dietenak ere.
- b) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Erregelamendu Orokorraren 21. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren batean erortzen direnak.
- c) Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea betetzeko, sozietatearen xedetzat edo dedikaziotzat osorik edo zati batean armen produkzioa, merkaturatzea eta finantzaketa duten enpresak.
- d) 651/2014 Erregelamenduaren 1. artikuluan 4.a) eta 4.c) idatz-zatietan xedatutakoaren arabera:
 - Aurretik eman zaien edozein laguntzaren edo dirulaguntzaren gain berreskuratze-agindu baten mende dauden enpresak, legez kontrakoa eta barne-merkatuarekin bateraezina den lege gisa deklaratu delako, edo emakidan esleituta dituen betebeharren edozein motatako ez-betetzearengatik.
 - Krisian dauden enpresak, 651/2014 Erregelamenduaren 2. artikuluan 18. zenbakiaren zentzuan.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

2.6. Azken hartzaileek jasotzen duten laguntzaren zenbateko osoa dagokion jarduketak ordaintzera bideratuko dute. Jabeen erkidegoak edo elkarteak direnean, erregela hori aplikatzekoa izango da betiere, alde batera utzita jarduketaren zenbatekoa zein obren kostua etxebizitzaren eta lokalen jabeengan jasanarazi behar dela, Jabetza Horizontalaren legedian aurreikusitako erregelekin bat etorri. Dena den, jabeen erkidegoko edo elkarteko kideetako bat Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 artikuluan ezarritako debeku batean edo bat baino gehiagotan erortzen bada, jabe horri ez zaio esleituko jasotako laguntza horretatik esleituko litzaiokeen proportziosko zatia, eta zati hori erkidegoko edo elkarteko gainerako kideen artean hainbanatuko da.

3. Aurrekontu-hornidura eta eskaerak aurkezteko lekua eta epea.

Laguntza-programa honetara bideratutako hornidura ekonomikoa **11.267.472 euro** da, EEEren aurrekontuetan horretarako ezarritako dagokion kontuaren arabera.

Laguntza-programa honetarako laguntza-eskaerak aurkezteko epea 2020ko azaroaren 16an hasiko da indarraldia amaitzen den arte, 2021eko uztailaren 31era arte, hain zuzen ere.

Adierazitako indarraldi hori amaitzean, ez dira eskaera gehiago onartuko. Dena den, esleitutako aurrekontua agortzen bada eta betiere programaren indarraldia amaitu ez bada (2021eko uztailaren 31), eskaerak erregistratu ahalko dira behin-behineko erreserba-zerrendan, eta sarrera-ordenari zorrotz jarraikiz artatuko dira, aurreikusitako ezespeneak edo errebokazioak gertatzearen mende, aurrekontua askatu ahalko luketenak, edo deialdian aurrekontu berri bat sartzen bada. Eskaera bat behin-behineko zerrendara aurkezteak ez dio ezekin eskubide sortuko eskatzaileari eskaera ebazten ez den arte. Testuinguru horretan, gaineratu ahalko dira, kasuan-kasuan, **1.2 oinarrian** adierazitako zuzeneko inbertsioen finantzaketara bideratu ezin ahal izan diren aurrekontuari dagozkion gerakinak.

Aurrekontu erabilgarria agortu dela iragarriko da, EHAAn zein EEEren Interneteko helbidean: <http://www.eve.eus>.

Epeak zenbatzeko, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean «**39/2015 Legea**») 30. artikuluan xedatutakoa egongo da indarrean.

4. Jarduketa diruz lagungarriak eta laguntzen zenbatekoa.

4.1 Laguntzen Programa honetara biltzeko, jarduketak azken energiaren kontsumoaren eta karbono dioxidoaren emisioen murrizketa lortu eta justifikatu beharko dute, beren abiapuntuarekin alderatuta betiere, eta 737/2020 EDan ezarritako baldintzak bete.

Azken erabilzaileari dagokion aurrezpena 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren V. Eranskinaren kalkulu-metodoen arteko baten bidez justifikatuko da.

4.2 Programa honetara bildutako jarduketek lortutako azken energia-aurrezpena 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren 7. artikulua azken energia-aurrezpeneko helburuak betetzeari dagokionez zenbatuko da, urriaren 15eko 18/2014 Legearen xedatutakoaren arabera. Energia-aurrezpen hori ezin izango dute horretara behartutako subjektuek bitan zenbatu, zuzentarau horretako 7. artikuluan 2014-2020 aldirako energia-aurrezpen metatuko helburua betetzeari dagokionez.

Ezin izango dira hautatu beren abiapuntuarekin alderatuta azken energia-kontsumoko ehuneko hamarreko (% 10) murrizketarik lortzen eta justifikatzen ez duten jarduketak.

Azken energia-aurrezpena eta jarduketaren hautagarritasuna kalkulatzeko 2019ko irailaren 25eko Batzordearen 2019/1658 (EB) Gomendioa izango da aplikatzekoa, energia-aurrezpeneko betebeharren transposizioari buruzkoa, energia-efizientziari buruzko zuzentarauaren arabera.



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

- 4.3** EAEn dauden eraikin osoetako jarduketetara bideratuko dira laguntzak, honako erabileren arteko bat edo bat baino gehiago duten eraikinetakoetara:
- Familia bakarreko etxebizitzako eraikinak (etxebizitza isolatuak, atxikiak, txaletak, ...).
 - Etxebizitzako bizitegi kolektiboko tipologiako eraikinak;
 - Beste edozein erabilerako eraikinak (administratiboa, sanitarioa, irakaskuntza-arlokoa, kulturala, eta abar), Eraikintza Antolatzeari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen 2.1 artikulua araututakoan.
- 4.4** Honako hauek ez dira jarduketa diruz lagungarriak izango:
- Eraikuntza berriko eraikinetan egindakoak;
 - Zabalkuntza bat dakarten egungo eraikinetako esku-hartzeak, zeinetan eraikitako azalera edo bolumena gehituko den;
 - Eraikinaren erabilera-aldaketa dakarten egungo eraikinetako esku-hartzeak.
- 4.5** Tipologia hauetako batean edo bat baino gehiagotan sartu behar dira jarduketa diruz lagungarriak, eta oinarri hauetako **I. ERANSKINEAN** bakoitzerako ezartzen diren eskakizun espezifikoak bete:
- Ingurutzailerako termikoaren energia-efizientzia hobetzea
 - Energia-efizientzia eta energia berriztagarrien erabilera berokuntzako, klimatizazioko, hozketako, aireztapeneko eta etxeko ur beroko instalazio termikoetan.
 - Argiztapen-instalazioen energia-efizientzia hobetzea.
- 4.6** Horrekin batera, honako eskakizun hauek bete behar dira laguntzak emateko:
- Gaur egun dagoena eta 2007a baino lehen eraikitakoa izan behar du eraikinak, eta ondasun higiezinaren datu katastralaren kontsulta deskriptibo eta grafikoaren bidez kontsultatuko da.
 - Eraikinaren erabilerari dagokion laguntza aplikatzeko, etxebizitza-erabilerakoa edo beste erabilera batekoa den kontuan izanda, sestra gainean eraikitako azalera balioetsiko da, kontsulta katastral bidez justifikatuta. Ildo horretan, etxebizitza-erabilerako eraikintzat hartua izateko, sestra gainean eraikitako eraikin horren ehuneko hirurogeita hamar (% 70) gutxienez erabilera konkretu horretara bideratu behar da.
Kasu horretan, jarduketa egiten den gaineko azalera osoari aplikatuko zaio laguntzaren zenbatekoa, erabilera osorik etxebizitza-erabilerara bideratutakoa ez izatea alde batera utzita.
- 4.7** Laguntzako jarduketek gutxienez letra batean hobetu behar dute eraikinaren energia-kalifikazio totala karbono dioxidoko emisioen eskalan (kg CO₂/m² urte), eraikinaren hasierako energia-kalifikazioarekiko. Irizpide hori ez da aplikatzekoa izango honako kasu hauetan:
- Eraikinak A energia-kalifikazio bat duela akreditatzen duenean eta hobekuntza-neurriak proposatzen direnean; kasu horretan, aplikatuko den laguntza gehigarria A letrari dagokiona izango da, irizpide honetarako.
 - Eraikinak bere energia-kalifikaziorako prozedura bat ez duenean, oinarri honetako 4.3.c) idatzatian bildutakoan arteko bat izanik. Kasu horretan, bere azken energia-kontsumoa ehuneko hogeian (% 20) murriztu behar du letra baten hobekuntzaren efektu baliokide gisa.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

Bere energia-kalifikazioaren hobekuntza jarduketa tipologia bat eginez edo tipologia bat baino gehiago uztartuz lortu ahal izango da, baita jarduketa desberdin baten edo bat baino gehiagoren neurriak egitearen bidez ere. Eraikinaren energia-ziurtapena eraikinaren energia-efizientzia ziurtatzeko oinarritzko prozedura arautzen duen araudiaren arabera egingo da, onetsitako programa informatiko ofizialen artekoren bat erabilia.

4.8 Laguntzako jarduketek aplikatzeko zaien indarreko araudia bete beharko dute, eta beharrezko lizentziak eta administrazio-baimenak eduki jarduketa horiek hori eskatzen badute.

5. Kostu hautagarriak.

Programa honi dagokionez, oinarri hauetako **II. ERANSKINEAN** adierazitakoak izango dira kostu hautagarriak.

6. Dirulaguntzetarako muga orokorrak.

6.1. Laguntzen zenbatekoaren muga orokorra.

Laguntzen deialdi honen esparruan burututako jarduketek jarduketa diruz lagungarrien mota guztiei aplikatzekoak zaizkien honako muga hauek izango dituzte:

- Gutxieneko kostu hautagarria eskaera bakoitzeko:	10.000 €
- Gehieneko kostu hautagarria eskaera bakoitzeko:	1.000.000 €
- Gehieneko laguntza laguntzaren azken hartzaile bakoitzeko:	500.000 €

6.2. Europako araudi aplikagarria.

651/2014 Erregelamenduan ezarritako eskakizun eta mugen mende egongo dira laguntza hauek.

Era berean, Eskualde Garapenerako Europako Funtsekin batera finantzatu ahalko diren neurriek honako hauek aplikatu ahalko zaizkie: Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 zenbakiko Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 17koa, Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1301/2013 zenbakiko Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 17koa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1299/2013 zenbakiko Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 17koa, baita esparru horretan osatzen edo ordeztzen duen beste edozein araudi ere.

6.3. Bateragarritasun-erregimena beste laguntza batzuekin.

Oinarri hauek araututako dirulaguntzak bateragarriak dira helburu bera duen beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek, estatuak, Europar Batasunak edo nazioarteko edozein erakunde publikok zein pribatuk emana, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada eta bi baldintza hauek betetzen badira.

- Metatuta ere ez daitezela gainditu 2014ko ekainaren 17ko 651/20145 zenbakiko Erregelamenduan ezarritako mugak, enpresak diren edo jarduera komertzial edo merkataritza-jarduera garatzen duen azken hartzaileentzat.
- Beste administrazio batzuek jarduketa bererako emandako laguntzek Europako Funtsen baterako finantzaketa ez izatea.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

*Una manera de hacer Europa***Diruz lagundutako jarduerak hirugarrenekin azpikontratatzea edo kontratatzea.**

- a) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 29. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Erregimen Orokorraren 68. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, azken hartzaile batek azpikontratatzeko duela ulertuko da honako egoera hau gertatuz gero: dirulaguntzaren xedea den jardueraren zati baten edo jarduera osoaren egikaritzapena hirugarren batekin hitzartzen badu. Diruz lagunduko den jarduera aurrera eramateko onuradunak berak egingo dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo geratuko da.

Nolanahi ere, hirugarrenen kontratazioa edo azpikontratazioa diruz lagunduko den jardueraren zenbatekoaren %100 izan daiteke; diruz lagunduko diren jardueren kontratazio edo azpikontratazioaren aplikazioari dagokionez, gorago aipatutako 29. artikuluan xedatutakoa beteko da.

- b) Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31.3 artikuluan xedatutakoa betez, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (SPKL) aplikazio-araudia bazter utzi gabe, eskatzailearen izaera juridikoaren arabera, Kontratazio Publikoaz diharduen araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte gastu lagungarriaren zenbatekoak, kontratu txikiari dagokionez (15.000 euro, BEZik gabe, zerbitzu eta horniduretarako, eta 40.000 euro, BEZik gabe, obretarako), azken hartzaileak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada haiek gauzatu, eman edo hornitzeko, edo salbu eta dirulaguntza eman baino lehen egiten baldin bada gastua.

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak kontuan hartuta egingo da, baita aukeraketa espreski justifikatuta geratzea ere, baldin eta aukeratua kalitate-prezio erlazio onena duen proposamena ez denean.

7. Bideratzeko kudeaketa eta prozedura.

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz eta **Administrazio Elektronikoz** diharduen otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren arabera (aurrerantzean, «**21/2012 Dekretua**»), laguntza-programa honi lotutako espedienteen bideratze edo izapidetze guztiak (eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta gainerako kudeaketak) egiteko, horretarako berariaz diseinatutako aplikazio informatikoa erabili beharko da. Aplikazio hori EEEn webgunean dago eskuragarri, helbide honetan: www.eve.eus. Hori guztia, pertsona fisikoen kasurako 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoa alde batera utzi gabe.

Dirulaguntzak eskatzea edo bideratzearekin zerikusia duten edozein izapide edo dokumentu aplikazio informatiko horrekin eginez gero, era elektronikoa, sinadura elektronikoa aitortu bat eduki beharko du, 21/2012 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Eskaera osatugabea, akatsekin badago, edo oinarri hauetan eskatzen dena bete gabe, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio interesdunari zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik kontatzen hasita, eta hori egin ezean, eskaera bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebazpen baten bidez, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidez diharduen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua arabera.

Pertsona juridiko batek eskaera aurrez aurre edo presentzialki aurkeztuz gero, ezarritako bide elektronikotik kanpo, interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko, eta era elektronikoa aurkezteko. Horri dagokionez, eskaeraren aurkezpen data edo eguntzat joko da zuzenketa egiten den eguna.



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

*Una manera de hacer Europa***8. Laguntza-eskaera.**

Oinarri hauen arabera, dirulaguntzaren eskaeraren formularioa eta berarekin batera bidali behar den dokumentazio tekniko-administratiboa, horretarako dagoen aplikazio informatikoaren bidez, **7. oinarrian** aipatutako lekura bidali beharko dira, **3. oinarrian** adierazten den epearen barruan.

Laguntza hauek zuzenean emango dira, Dirulaguntzei buruzko Legearen 22. eta 28. artikuluei eta Dirulaguntzei buruzko Erregimenaren I. titularen III. kapituluari jarraikiz. Horrenbestez, eskaeraren aurkezpen-ordenari zorrotz jarraikiz artatuko dira eskaerak (laguntza-eskaerak ebazteko ordenari dagokionez **9. oinarriaren** lehenen paragrafoan adierazitakoa bazter utzi gabe) funtsak agortzen diren arte. Aurrekontua agortutzat hartzen da programa honen aurrekontuari esleitutako zenbatekora iristen den laguntza emateko azken ebazpenaren erregistroa egiten denean.

EEEk automatikoki egiaztatuko du NANA, IFK eta zerga-betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duten eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketetan ere egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak, hori guztia Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatuko Zerga Agentziari lotutakoak izan ezik. Dena den, laguntza-eskaeraren baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion ziurtagiria edo eskatutako dokumentua aurkeztu beharko du, eta hori guztia 39/2015 Legearen 28. artikularen 2. paragrafoen xedatutakoari jarraikiz.

Laguntza-eskaerak oinarri hauetako **III. ERANSKINEAN** adierazitako dokumentazio guztiarekin batera joango dira, laguntzaren azken hartzailearen tipologiaren eta diruz lagundu nahi den jardueraren arabera.

EEEk eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio guztia.

9. Ebazpena, komunikazioa eta publizitatea.

Dirulaguntza emateko prozedura lehia edo konkurrentzia jarraitua izango da, eta, beraz, eskabideak aurkezten diren hurrenkeraren edo ordenaren arabera aztertu eta bideratuko dira espedienteak, eta modu egokian formulatuak eta beteak egongo diren heinean eta hurrenkeran bideratuko dira. Eskabidea akastuna izanez gero, eta konpondu behar bada, aurkezpen-datatzat aurkezpena egin den data hartuko da.

EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak ebazpena eman eta jakinarazpena helaraziko dio eskatzaileari sei (6) hilabeteko gehieneko epean, dirulaguntza-eskaera aurkezten den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua). Epe hori igaro ondoren, eta ebazpen zehatzik jasotzen ez badu, gaitzetsizat hartuko da eskaera.

Ebazpenean honako hau azalduko da: (i) dirulaguntzaren xedea den jarduera, (ii) haren zenbatekoa (kantitate gordina, azken hartzailearen izaeraren ondoriozko zerga-betebeharrei utzi gabe), (iii) funtsen jatorria (Energia Efizientziako Funts Nazionala, Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa eta baterako finantzaketa Europako Funtsekin), (iv) interesekoak izan daitezkeen beste alderdi batzuk eta (v) eskaerari ezezkoa emanez gero, ezezkoaren arrazoiak.

Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, eskatzaileek hautazko birjartze errekurtsoa jar dezakete EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren aurrean hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikularekin bat etorritik; hain zuzen ere, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (aurrerantzean, «**29/1998 Legea**»).

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, betiere onuraduna izateko dirulaguntzen araudiek ezartzen dituzten gutxieneko betekizunak babestuz, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake, dirulaguntza arautzearen inguruko legeriak xedatzen duenarekin bat etorriz (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 19.4 artikulua eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikulua).

Azkenik, 19/2013 Legeak dioenarekin bat etorriz, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa (aurrerantzean, «**19/2013 Legea**») eta Dirulaguntzei buruzko Erregimen Orokorra, laguntza programa hau amaitu eta gero, EEEK bere Gardentasun Atarian eta EHAAn argitaratuko ditu emango diren dirulaguntzak; baita legeak eskatzen dituen datuak ere azalduko dira bertan.

10. Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea.

10.1 Laguntza honetako jarduketak egikartzeko eta fakturatzeko gehieneko epea hemezortzi (18) hilabete izango da, laguntza emateko ebazpena jakinarazi den datatik zenbatzen hasita.

10.2 Azken hartzaileek laguntzako jarduketak egikaritu, fakturatu eta ordaindu dituztela erakusten duen justifikazioa EEEen egin behar da, elektronikoki, **7. oinarrian** adierazitako aplikazio informatikoaren bidez, pertsona fisikoen kasurako 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoa bazter utzi gabe, hiru (3) hilabeteko gehieneko epean jarduketak egikartzeko emandako gehieneko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

10.3 Horretarako, laguntzen azken hartzaileak aplikatzekoa den oinarri hauetako **IV. ERANSKINEAN** adierazitako dokumentazio guztia aurkeztu beharko du, eta, espezifikoki, laguntzaren azken hartzailearen eta egikaritu den jardueraren arabera adierazitakoa. Horri dagokionez, espresuki adierazten da (i) ez dela onartuko justifikazio-kontua auditorearen txostenarekin aurkeztuta onartzea, (ii) ez dela dokumentazioa aurkezteko inolako salbuespenik ezarriko, (iii) eta ez dagokiola ezin aurrerakinik ematea 737/2020 EDan adierazitakoari jarraikiz.

10.4 Zerga-betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duten eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketetan ere egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak, hori guztia Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatuko Zerga Agentziari lotutakoak izan ezik. Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion ziurtagiria edo eskatutako dokumentua aurkeztu beharko du, eta hori guztia 39/2015 Legearen 28. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoari jarraikiz.

10.5 Laguntzaren azken hartzaileak aurkeztu beharko du dokumentazioa, edo haren legeko ordezkariak, egintza bakarrean eta osorik. Horrela, egindako ordainketa-eskaera osatu gabea bada, akastuna bada, edo postaz edo presentzialki aurkezten bada, laguntzaren azken hartzaileari hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio zuzentzeko dagokion eskaera-idazkiaren bidez, laguntzaren azken hartzaileak zuzentze-jakinarazpena jasotzen duenetik zenbatzen hasita (39/2015 Legearen 68. artikulua).

10.6 EEEK ez du zabalduko edo luzatuko eskatutako dokumentazio osorik entregatzeko epea eta justifikazioa idatz-zati honetan ezarritako epean ez justifikatzeak dirua itzultzea eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritako gainerako erantzukizuna ekarriko ditu. Jarduketak egikartzeko epeak aurreikusitako diren arrazoiengatik soilik zabaltea baimenduko da, betiere behar bezala justifikatuak badira eta jarduketak betetzea ezinezkoa izatea eragiten badu, laguntzen azken hartzaileek beren aldetik eska daitezkeen gutxieneko neurri tekniko eta plangintza-neurriak hartu izan badituzte ere. Ezin izango da, ezin kasutan ere, zenbaketa totalen laguntza ematearen ebazpenaren jakinarazpen-datatik edo dagokion kontratua esleitzeko ebazpen-datatik hogeita lau (24) hilabete gainditzen dituzten epe-zabalkuntzak baimendu laguntzaren xede den jarduketa egikartzeko.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

10.7 Eskatutako dokumentazioa jasotakoan dokumentazioa aztertu egingo da. Aurkeztutako dokumentazioaren balorazioa positiboa bada, EEEK laguntza ordaintzeari ekingo zaio, funtsen jatorriaren erreferentzia espresua eginda, Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa eta Eskualde Garapenerako Europako Funtsak aipatuz funts horiek batera finantzatutako jarduketa bat bada, finantza-erakunde gisa. Aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa kontrastatutakoan, ikusten bada dirulaguntzaren azken zenbatekoak hasieran emandakoa baino txikiagoa izan behar duela, laguntzaren errebokazio partzialeko espediente bati emango zaio hasiera. Aitzitik, honako zirkunstantzia hautakoaren bat ematen bada:

- Eskatutako epean eskatutako dokumentazio osoa ez ekartzea;
- Dirulaguntzaren xede den jarduketaren egikaritzapena eta fakturazioa hemezortzi (18) hilabeteko epean ez akreditatzea, laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita;
- Oinarri hauetan edota dirulaguntzen arloan ezarritako araudian bildutakoen arteko beste edozein baldintza ez betetzea

Laguntzaren erabateko errebokazioko espediente bati emango dio hasiera EEEK.

Laguntzaren bi errebokazio-kasuetan, laguntza kobratzeko eskubidearen galera deklaratu da, Dirulaguntzei buruzko Erregimenaren 89. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta horretarako Dirulaguntzei buruzko Legearen 42. artikuluan aurreikusitako prozeduraren bidez.

10.8 Laguntzaren azken erabiltzaileak horretarako adierazitako banku-kontuan ordainduko du EEEK dirulaguntza, identifikatutako proiektua dagokion laguntza-eskaeran amaitu ondoren, lortu nahi ziren helburuen betetze-maila eta egindako gastuak egiaztatzeko aukera emango duen dokumentazioa EEEri aurkeztu ondoren.

10.9 Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta Instituzionalak, bere erakunde autonomiadunek, erakunde publikoak eta, oro har, Sektore Publikoko beste edozein erakundeek emandako izaera bereko dirulaguntzak itzultzeko dauzkaten elkarrekin edo erakundeek ezin izango dute laguntzen programa honek ematen duen dirulaguntzarik jaso. Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko dirulaguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldian edo bide betearazlean.

Azken erabiltzaileek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertzeko, hauxe izango da irizpidea: dirulaguntza horiek emandako administrazioarekiko zorrik ez izatea epealdi betearazlean dirulaguntzak itzultzeari dagokionez, edo azken erabiltzaileei zein elkarte laguntzaileei premiamendu-bidea ezartzea edo aurrera eramaterik ez dagoen kasuetan, borondatezko aldian zorrik ez izatea. Era berean, onuradunek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela ulertuko da zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo bertan behera uzteko erabaki bada, itzultzeko dagokion ebazpena aurkaratuz gero (Dirulaguntzei buruzko Erregimen Orokorraren 21. artikulua).

11. Inbertsioak egiaztatzea.

Dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren, EEE Energiaren Euskal Erakundeak inbertsioen egiaztatzea egin ahal izango du, eta bertan erositako ibilgailuen zenbait argazki adierazgarri egin ahalko dira, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz. Nolanahi ere den, EEEK beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatu ahal izango da; betiere, dirulaguntzen erabilera egoki egingo dela ziurtatu nahian.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

Dirulaguntza jasotako jardueraren inbertsioen in situ egiaztatzea egingo zaien onuradunei aldez aurretik idazki bat bidaliko zaie, haren berri emateko EEEn aldetik. Jakinarazpena jasoko dutenek egiaztatze hori erraztu beharko dute.

Jakinarazpena bidali ondorengo bi asteren barruan, EEEK onuradunari inbertsioen egiaztatzea egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz, ezin bada ikuskapena egin, EEEn zerikusia ez duten arrazoiak tarteko, idazki bidez jakinaraziko zaio azken onuradunari hamabost (15) egun balioduneko epea izango duela beste hitzordu bat egiteko, inbertsioen egiaztatzea egin ahal izateko. Hori egin ezean, EEEK dirulaguntzaren zenbatekoa errebokatze espedientea abiaraziko du.

Egiaztatzean hartutako informazioa eskabidean aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako dirulaguntza kantitateak txikiagoa izan behar duela, edo ez dagokiola dirulaguntzarik jasotzea ondorioztatzen bada, kasuan-kasuan, EEEK dirulaguntza partzialki edo erabat errebokatze espedientea egingo du eta, hala badagokio, zati bat edo kantitate osoa itzultzeko eskatuko du, legezko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrak aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

12. Laguntzen azken hartzaileen betebeharrak.

Laguntza-deialdi honen bitartez arautzen diren laguntzen azken hartzaileek, betiere, betebeharrak hauek izango dituzte:

- a. Dirulaguntzei buruzko Legearen 14. eta 46. artikuluetan eta 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan xedatutakoak.
- b. Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza eman zaiola jakinarazten dion agiria jaso eta hamabost (15) eguneko epean onuradunak berariaz eta idazki bidez uko egiten ez badio, onartu egin duela ulertuko da, dirulaguntzen deialdi honetan zein ebazpenean ezartzen diren baldintza ekonomikoei eta gainerakoei dagokienez, baita laguntzen deialdi honi dagokionez ere.
- c. Dirulaguntza zertarako eman zaion, horretarako erabiltzea.
- d. Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuari eta Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioari ematea eskatu ahal dioten informazioa; betiere, dirulaguntza hauek kontrolatzeko dituzten zereginak behar bezala egin ahal izateko, dirulaguntzen deialdi honen kargura eta, espezifikoki EEEK era berean nahitaez Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuari igorri behar diona 737/2020 EDaren IV. Eranskinean aurreikusitakoa betetzeko.

Diruz lagundutako proiektuari buruz egiten diren komunikazio- eta sustapen-ekintza guztiek, dela paperezko euskarrian, euskarri elektronikoan edo ikus-entzunezkoan, erreferentzia espresu bidez jaso beharko dute proiektu hori diruz lagundua izan dela *Euskadin dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketak egiteko laguntzen programa - PREE programa* eta 737/2020 EDaren 21. artikuluan adierazitakoari jarraikiz

- e. Horrela, dirulaguntzaren azken erabiltzaileak argitalpenetan, hedatze-jardueretan, webguneetan eta, oro har, edozein hedabideetan araututako laguntzen xede den jarduketari buruz egiten duen edozein erreferentziak kasuan-kasuan EEEK zehazten dituen eskakizunak bete beharko ditu, eta Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren webgunean erabilgarri egongo den Programaren Irudi Eskuliburuan daudenak.
- f. Xede bererako dirulaguntzen edo laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen eskaera jakinaraztea, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek emandakoak badira.



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

- g. Jarduketak aplikatzekoak zaizkion erregelamendu eta araudiak betez egikaritzea, eta jarduketaren osagaiek organismo eskudunaren dagokion homologazioa izan beharko dute. Horrela, laguntzaren azken erabiltzaileak bere gain hartzen du dirulaguntzaren xede den proiektua erabat egokitzen zaiola indarreko araudi aplikagarriari, tekniko edo urbanistikoa, edo beste edozein izaeratakoa.
- h. Laguntzen deialdi honi jarraikiz diruz lagundutako eraikinaren jabeak eraikin hori laguntza ordaintzen den datatik bost (5) urte baino gutxiagoko epe batean besterentzen badu, espresuki jaso behar du higiezin horren salmentaren kontratu-dokumentuak *Euskadin dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketak egiteko laguntzen programa - PREE programaren* babesa izan duela, adierazitako epea bete den arte behintzat. Kontrako kasuan, laguntzaren errebokazio-prozedura bati emango dio hasiera EEEK. Kasuan-kasuan, EEeri informatu behar zaio besterentze horren inguruan, sei (6) hilabeteko gehieneko epean laguntzako higiezinaren salerosketatik zenbatzen hasita. Erosleak, aipatutako besterentzeari dagokionez, agindutakoa behar bezala betetzen ez badu, dirulaguntzaren azken erabiltzaileak dirulaguntza itzultzeko betebeharra duela biltzen duen konpromisoa hartzen du.
- i. EEEK hala eskatzen baldin badio, azken erabiltzaileak konpromisoa hartzen du lortutako emaitzen bilakaeraren berri emateko, baita haien dibulgazio lanak egiteko ere, lau (4) urteko epean, EEEK dirulaguntza ematen duen egunetik kontatzen hasita.
- j. Dirulaguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektibo zein subjektiboren berri ematea EEeri.
- k. Eman daitekeen dirulaguntza ondo erabiltzen dela egiaztatzeko, EEEK eska diezaiokeen informazio guztia emango du azken erabiltzaileak.
- l. Diruz lagundutako proiektuaren ondoriozko informazioa EEeren eskura jartzea, haren emaitzak zabaltzeko xedez, alde biek elkar hartuta.
- m. Eskualde Garapenerako Europako Funtsekin batera finantzaturako dirulaguntzen programa bat denez, 737/2020 EDan ezartzen diren baliabide horien jatorriaren ondoriozko betebeharrak nork bere gain hartzea.

13. Ez-betetzeak eta dirua itzultzea.

Jasotako dirulaguntza osoaren edo zati baten itzultzeari ekingo zaio eta dagozkion berandutze-interesak eskatuko zaizkio (diruaren legezko interesari % 25 gehituko zaio, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak beste kantitate bat esaten ez badu), dirulaguntza ordaintzen zaion unetik edo egunetik itzulketa egiteko erabakia hartzen den data edo egunera arte, Dirulaguntzei buruzko Legearen 37. artikuluan xedatutakoa betez. Itzulketa partzialki egin beharko den kasuetan, aipatutako Dirulaguntzei buruzko Legearen 37.2 artikuluan xedatutako graduazio-irizpideak hartuko dira kontuan.

Deialdi edo programa honetan ezarritako eskakizunak eta **15. oinarrian** aurreikusitako aplika daitezkeen gainerako arauak edo dirulaguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezean, eta ez-betetze espedientea ireki ondoren, dirulaguntzaren errebokazio totala edo partziala eragingo du horrek eta dirua itzuli egin beharko litzaioke EEeri, berandutze-interesekin batera. Hori guztia, honako legeriak xedatutakoa betez: 1/1997 Legegintzako Dekretuan xedatutakoari jarraikiz eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren II. Titulua EAEko Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeei eta itzulketei buruzko araudi orokorra arautzen duena, eta kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete behar dituzten eskakizunak, arautegia eta betebeharrak finkatzen dituena. Nolanahi ere, horrek ez du salbuesten bestelako zehapen eta lege-egintzetatik.

Errebokatzeko espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta, hala dagokionean, dirulaguntza partzialki edo osorik itzularazteko, EEEKo zuzendari nagusiak du.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

14. **Informazio-klausula eskatzailei.**

Datuen babesari buruzko informazioa (Datuak babesteari buruzko EB 2016/679 Erregelamendua betetzeko)	
Tratamenduaren arduraduna	ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE) IFZ: Q5150001E Helbidea: Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua, 48011, Bilbo (Bizkaia) tel.: 94.403.56.00 harremana DPO: dpd@eve.eus
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> - Zure dirulaguntza-eskaera aztertzea eta kudeatzea eta, kasuan-kasuan, eskaera ematearen ondorioz ezartzen den emaitzaren egikaritzapena eta kontrola. - Genero-datuari dagokionez, datu hori betetzea beharrezkoa izanik, Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-arloko politiken eta estrategien markoan erabiliko da datua, eta monitorizazio- eta estatistika-helburuetarako soilik. - EEErekin harremanak izateko hautatutako hizkuntzari dagokionez, datu hori betetzea nahitaezkoa delarik, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-arloko politiken eta estrategien arloan erabiliko da datua, eta monitorizazio- eta estatistika-helburuetarako soilik. - Estatistika-xedeekin tratatu ahaliko dira datuak.
Tratamendua eta kontserbazioa legitimatzea	<ul style="list-style-type: none"> - Eskaeraren aurkezpenarekin batera adierazitako interesdunaren baimena. - Tratamendua ezinbestekoa da guztion intereserako edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko egindako zeregin bat betetzeko. <p>Informazioa gordetzea: eskaera aztertzeke epean eta aplikatzekoak zaizkion legezko epeak. Laguntza emanez gero, emateko espedientearen zati izango dira datuak eta gorde egingo dira aktibo gordetzen den bitartean eta, ondoren, aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan.</p>
Emakiden hartzaileak	Kontrol-arloko eta alorrean eskumena duten erakunde eta autoritate autonomiko, lokal eta estatalak, edo Europar Batasunekoak.
Interesdunen eskubideak	Interesdunek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, eramangarritasunerako eskubideak eta tratamendua mugatzeko edo datuen aurka egiteko beren eskubideak egikaritu ditzakete EEERI idazkia bidaliz, « <i>datuak babesteko eskubideak egikaritzea</i> » adieraziz.
	Emandako baimena kentzeko eskubidea dute interesdunek.
	Interesdunek kontroleko agintarien aurrean (Datuen Babesteko Euskal Agentzia www.avpd.eus eta Datuen Babesteko Espainiako Agentzia www.agpd.es) erreklamatzeko eskubidea dute.
Dirulaguntzaren azken hartzaile orok konpromisoa hartzen du, bere dirulaguntza-eskeraren adierazitako proiektuaren kudeaketan eta, kasuan-kasuan, ondorengo egikaritzapenean inplikaturako edozein pertsona fisiko/juridikoren edozein datu pertsonal EEERI eman aurretik arestian adierazitakoari buruz informatuko duela dagokion pertsona fisiko/juridiko, eta aplikatzekoak izan daitezkeen beste edozein eskakizun bete EEERI datu pertsonak behar bezala lagatzeko.	

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

*Una manera de hacer Europa***15. Azken xedapenak.**

1. EEEn erabakiak izaera administratiboa du eta EEEk kudeatzen dituen dirulaguntzen jurisdikzio eskuduna administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa da.
2. *Euskadin dauden eraikinetako energia-birgaitzeko jarduketak egiteko laguntzen programa - PREE programa* honetatik eratorritako laguntzen xede diren jarduketatik lortutako irudien erabilera, egiteko eskubidea du EEEk, gehienez ere hamar (10) urteko epean.
3. Akatsak baldin badaude edo informaziorik eta dokumentaziorik ez badago laguntza emateko kudeaketan laguntzaren azken erabilizailearen aldetik, eta horrek zuzenean eragina badu EEEk eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko garaian, laguntzaren azken hartzailearen erantzukizun bakarra izango da. Horregatik, egindako benetako gastua laguntza emateko ebazpenean kontuan hartutakoarekiko hazkundeak ezein kasutan ere ezin izango du emakidaren zenbatekoa gorantz berrikustea zehaztuko.
4. Oinarri hauek aipatzen dituen dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende daude:
 - 737/2020 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, *Dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketarako laguntza programa - PREE programa*;
 - Azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra;
 - 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena.
 - 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
 - Batzordearen 2014ko ekainaren 26ko 651/2014 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez laguntza kategoria jakin batzuk merkatu erkidearekin bateragarriak direla adierazten den, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz (EBAO 2014 L 187).
 - Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 zenbakiko Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 17koa, zeinaren arabera xedapen erkideak eta Eskualde Garapenerako Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari, Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsari, eta Itsas eta Arrantzako Europako Funtsari buruzko xedapen orokorrak ezartzen diren, eta indargabetzen den Kontseiluaren 1083/2006 zenbakiko Erregelamendua; Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1301/2013 zenbakiko Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 17koa, Eskualde Garapenerako Europako Funtsari buruzkoa, zeinaren arabera indargabetu egiten diren 1080/2006 zenbakiko Erregelamendua; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1299/2013 zenbakiko Erregelamendua (EB), 2013ko abenduaren 17koa, baita esparru horretan osatzen edo ordeztzen duen beste edozein araudi ere.
 - 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa;
 - 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioa arautzen duena; eta
 - 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoa buruzkoa.

- | | | |
|----------------|---|--|
| I. Eranskina | - | Laguntzen Zenbatekoa eta Jarduketa Diruz Lagungarriak. |
| II. Eranskina | - | Kostu Hautagarriak. |
| III. Eranskina | - | Eskaera-Fasean Aurkeztu Beharreko Dokumentazioa. |
| IV. Eranskina | - | Justifikazio-Fasean Aurkeztu Beharreko Dokumentazioa. |

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

*Una manera de hacer Europa***I. ERANSKINA****LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA JARDUKETA DIRUZ LAGUNGARRIAK****I.1 ERANSKINA****LAGUNTZEN ZENBATEKOA**

- Oinarritzko Laguntzaren eta egokitu ahalko litzatekeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da laguntzaren zenbatekoa, kasuan-kasuan, ondorengo 3. zenbakian adierazten diren irizpideak betetzearen arabera.
- Oinarritzko Laguntzaren zenbatekoa ondorengo taulako ehunekoen arabera zehaztuko da, eta zenbateko horren kalkulua **I.2 Eranskinean** ageri den prozedurari jarraikiz:

Jarduketa tipologiak (%-a kostu hautagarriaren arabera)	Oinarritzko Laguntza	Laguntza Gehigarria energia-efizientziako irizpide sozialagatik edo integratutako jarduketagatik
1. mota Ingurutzaille termikoaren energia-efizientzia hobetzea	% 35	Eraikinaren erabileraren arabera eta I.2 Eranskinean ezarritakoaren arabera, jarduketa motarako. Oinarrietan ezarritako mugetaraino.
2. mota Instalazio termikoen energia-efizientziaren hobekuntza.	% 35	
3. mota Argiztapen-instalazioen energia-efizientzia hobetzea.	% 15	

- Irizpide sozialaren, energia-efizientziaren eta jarduketa integratuaren arabera graduatuko da Laguntza Gehigarria, ondoren definitutakoaren arabera:

a) **Irizpide soziala**: Laguntza gehigarriko eskubidea izango dute, **I.2 Eranskinaren** graduazioaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunak babes publikoko erregimenen baten pean behin betiko kalifikatutako etxebizitza-erakinetan egindako jarduketek, edo Hiri eta Landa Eremuak Berroneratzeko eta Berritzeko Guneetan dauden etxebizitza-erakinetan egindako jarduketek, martxoaren 9ko 106/2018 Errege Dekretuak araututako 2018-2021 aldiko Etxebizitzari buruzko Estatu Planaren arabera.

b) **Energia-efizientzia**: Energia-efizientzia hobetzeagatik laguntza gehigarri baterako eskubidea izango dute, **I.2 Eranskinaren** graduazioaren arabera, «A» edo «B» energia-klase bat lortzeko eraikinaren energia-kalifikazioa igotzen duten jarduketek, CO2 eskalan, edo bestela bi letratan gehitzen dutenek hasierako energia-kalifikazioa, eraikinaren energia-efizientzia ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duen apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren arabera.

c) **Jarduketa integratua**: Jarduketa integratugatik laguntza gehigarriko eskubidea izango dute honako kasu hauek:

1) **I.2 eranskinean** definitutako jarduketan bi tipologiaren edo gehiagoren konbinaketa aldi berean egiten duten etxebizitza-erabilerako eraikinak, jarduketa horietako bat nahitaez delarik berokuntzaren eta hozketaren % 30eko eskaera globalaren gutxienezko murrizketa dakarren ingurutzaille termikoaren gain (1. tipologia), egungo sorkuntza termikoko potentziaren gutxienez % 60ko ordezipena dakarren 2. tipologiaren (2.2-2.4 tarteko tipologiak). Eguzki-instalazio termiko bat egiten bada (2.1 azpitipologia), etxeko ur berorako edo igerilekuen klimatizaziorako energia-eskariaren gutxienez % 30 estaltzea izango da baldintza, Eraikingintzaren Kode Teknikoak ezartzen duenari jarraikiz kalkulaturakoa S1 tipologiaren kasuan edo berokuntzaren edota hozketaren eskariaren % 30 S2 eta S3 tipologiaren kasuan.

2) **I.2 eranskinean** definitutako jarduketan bi tipologiaren edo gehiagoren konbinaketa aldi berean egiten duten etxebizitza-erabileraz bestelako erabileraz egiten duten eraikinak, jarduketa horietako bat nahitaez delarik berokuntzaren eta hozketaren % 30eko eskaera globalaren gutxienezko murrizketa dakarren ingurutzaille termikoaren gain (1. tipologia), egungo sorkuntza termikoko potentziaren gutxienez % 60ko ordezipena dakarren 2. tipologiaren (2.2-2.4 tarteko tipologiak). Eguzki-instalazio termiko bat egiten bada (2.1 azpitipologia), etxeko ur berorako edo igerilekuen klimatizaziorako energia-eskariaren gutxienez % 30 estaltzea izango da baldintza, Eraikingintzaren Kode Teknikoak ezartzen duenari jarraikiz kalkulaturakoa S1 tipologiaren kasuan edo berokuntzaren edota hozketaren eskariaren % 30 S2 eta S3 tipologiaren kasuan.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

3) **I.2 eranskinean** definitutako jarduketan bi tipologiaren edo gehiagoren konbinaketa aldi berean egiten duten etxebizitza-erabileraz bestelako erabilera duten eraikinak, jarduketa horietako bat nahitaez delarik berokuntzaren eta hozketaren % 30eko eskaera globalaren gutxieneko murrizketa dakarren inguratzaile termikoaren gain (1. tipologia), Eraikingintzaren Kode Teknikoaren HE 3 oinarriko eskakizuna betetzen duen argiztapen-azaleraren % 25etik gorako berrikuntza dakarren 3. tipologiaren (2.2-2.4 tarteko tipologiak) beste jarduketa batekin (barne-argiztapena).

4) Aurreko hiru kasuetan, jarduketa tipologietako baten (2 edo 3) ordezkari instalazio bat edo sorkuntza elektrikoko beste teknologia berriztagarri bat egitea jarri ahalko da, metaketarekin edo gabe, eraikinaren autokontsumora bideratutakoa instalatutako potentzia kontratatutako potentzia elektrikoaren % 10 denean gutxienez. Kostu hautagarritzat hartuko da instalazio fotovoltaikoa.

5) Laguntza gehigarriko eskubidea izango duite energia berriztagarrien erkidego baten barruan edo energiako herritarren erkidego baten barruan bildutako eraikinek **2.1.g) oinarriaren** definizioaren arabera.

Aurreko jarduketak behar bezala justifikatu behar dira egungo eraikinaren eta etorkizuneko birgaitutako eraikinaren energia-kalifikazioaren bidez, apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuaren arabera onetsitako programen arteko edozeinen bidez lortutakoa.

4. Laguntza totalaren zenbatekoa, edozein kasutan ere, oinarri hauetan aurreikusitakoak, eta jarduketa tipologiari eta onuradun motari aplikatzekoa gerta dakioken Estatuko laguntzen araudiaren aplikazioaren ondoriozko gehieneko zenbatekoak mugatuko du.

I.2 ERANSKINA

JARDUKETA DIRUZ LAGUNGARRIAK

1. jarduketa tipologia. Inguratzaile termikoaren energia-efizientzia hobetzea

1.– Helburua. Egungo eraikinaren berokuntzako eta klimatizazioko energia-eskaria murriztea, eraikin horien inguratzaile termikoaren energia-efizientzia osorik edo inguratzaile termikoa bera osatzen duten elementuren bat hobetuta.

2.– Jarduketa diruz lagungarriak. Jarduketa diruz lagungarriak izango dira eraikinaren inguratzaile termikoan egiten direnak, bizitzeko esparruak kanpo-girotik (airea, lurra edo beste eraikin bat) bereizten duten eraikinaren itxidurek osatzen dutena, eta bizitzeko modukoak diren esparruak bizitzeko modukoak ez direnetatik bereizten dituzten barne banaketak, aldi berean kanpo-giroarekin harremanetan egongo direnak. Neurri honen barruan bildutako energia-jarduketak eraikinaren berokuntzako eta klimatizazioko energia-eskariaren murrizketa bat lortzen dutenak izango dira, eraikinaren inguratzaile termikoaren gaineko jarduketan bidez. Inguratzaile termikoaren gaineko energia-jarduketek eraikuntza-soluzio konbentzionalak eta ez-konbentzionalak bildu ahalko dituzte.

Eraikuntza-soluzio konbentzionalak hartzen dira eraikinetan beren energia-eskaria murrizteko normalean erabiltzen direnak, hala nola fatxadak, estalkiak, kanpoko arrotzeria, beirak eta eguzki-babeskiak.

Eraikuntza-soluzio ez-konbentzionalak hartzen dira «arkitektura bioklimatikoko» neurri gisa ezagututakoak, hala nola, adibidez: Trombe hormak, horma parietodinamikoak, negutegi atxikiak, iluntze-sistemak, aireztapen naturala, eta abar.

Kostu hautagarritzat hartuko dira, halaber, jarduketa hori burutzeko beharrezkoak diren instalazio osagarriak, hala nola aldarmioak edo garabiak.

Diruz lagungarritzat hartuko dira eraikinaren inguratzaile termikoaren itxitura baten edo hainbaten (fatxada, estalkia, baoak eta abar) gaineko jarduketa integralak, baina ez eraikin bereko etxebizitza edo lokal baten gainekoak, indibidualki hartuko baitira kontuan. Honako baldintza hauek bete beharko dituzte jarduketek:

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

a) Zaharberritzen den ingurutzailerako termikoak bete behar dituen energia-efizientziako gutxienezko eskakizunak Eraikintzako Kode Teknikoaren DB-HE Energia Aurrezteko Oinarrizko Dokumentuan jasotakoak dira, eta proiektuaren edota memoria teknikoaren teknikari eskudunak akreditatu edota justifikatu behar ditu. Dagoen eraikin batenez, I. zatiaren V. zenbakia izango zaio aplikatzeko, «Dauden eraikinetan aplikatzekoak diren irizpideak». Eta bereziki malgutasunari buruzko 2. irizpidea, eta, hori horrela, oro har ezarritako prestazio-maila lortzea posible ez den kasuetan, energia aurrezteari buruzko oinarrizko eskakizunak betetzearen ikuspuntutik begiratuta, egokitzapen-maila handiena ahalbidetzen duten soluzioak hartu behar dira soluzio horiek teknikoki edo ekonomikoki bideragarriak ez direnean, beste zenbait arrazoiren artean.

b) «Lehenetsitakoak» ez diren eraikinaren efizientzia-ziurtagiria egiteko eskuduna den teknikariak erabilitako transmitantzia-balioak honela justifikatu behar dira: Hautatutako balioa «zenbatetsia» edo «ezaguna» bada, itxuraren osatzea aurreratu behar da. Hautatutako balioa «ezaguna» bada eta erabilitako materiala ez badago erabilitako efizientziaren kalifikazioko programa informatikoaren datu-basean, erabilitako Egokitasun Teknikoko Europako Dokumentua aurreratu behar da. Beiren eta itxituren kasuan beti aurreratu behar da CE ikurra edo arotzeriaren eta beiren fitxa teknikoak, haien ezaugarri teknikoak bertan ageri direlarik.

c) DB-SI Suteetako Segurtasuneko Oinarrizko Dokumentuaren arabera, zaharberritze-lanek ezin izango dituzte alde aurreko segurtasun-baldintzak hondatu. SATE Kanpotiko Isolamendu Termikoko Sistemen motako sistemetan eta aireztatutako fatxadetan material eta produktuen erabilera erregaitasun txikiko eta sua eragiteko ekarpen mugatua duten materialetara mugatuko da. Aireztatutako fatxaden kasuan, gainera, aire-zuloak suetarako bertikal eta horizontaleko hesiekin ekipatu behar dira, barruan gertatzen den tximinia-efektu bidezko hedapena mugatzeko.

3.- Laguntzen zenbatekoa. Horrelako jarduketarako programaren barruan eman beharreko laguntzak kontraprestaziorik gabeko diru-entregak izango dira, ondoren adierazten den bezala.

Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa Oinarrizko Laguntzaren eta kasu bakoitzari egokitu ahalko litzaiokeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da, ondorengo idatz-zatietan ezartzen denaren arabera eta, edozein kasutan ere, estatuko laguntzen araudian ezartzen diren mugen mende egongo da zenbateko hori:

1) Oinarrizko laguntza. Jarduketaren kostu hautagarriaren ehuneko hogeita hamabost (% 35) izango da laguntzaren zenbatekoa. Etxebizitza-erabilerako eraikinen kasuan, etxebizitzako 6.000 euroko gehieneko kostua izango du mugatzat zenbatekoak.

2) Irizpide sozialagatiko, energia-efizientziagatiko edo jarduketa integratuagatiko Laguntza Gehigarria. Oinarrizko laguntzarako laguntza gehigarri bat lortu ahalko da, betiere horretarako behar diren baldintzak betetzen badira, irizpide soziala, energia-efizientzia edo jarduketa integratua gertatzen den kasuetan, oinarri hauetako **1.1 eranskinean** kontzeptu horien inguruan ematen den definizioari jarraikiz. Laguntza gehigarriaren kalkulua hiru irizpideen arteko bakoitzaren ehuneko gehituz egingo da, dagozkionaren arabera. Energia-efizientziako irizpidearen kasuan hiru ehunetako bat soilik aplikatu ahalko da, dela A edo B energia-kalifikazioa edo 2 letratako edo gehiagoko gehikuntza. Jarduketa tipologia honi dagozkion laguntza gehigarriaren balioak honako koadro honetan adierazten dira, zeinean ehunekoak jarduketa tipologia honi dagozkion kostu hautagarrien baturari buruzkoak diren:

Eraikinaren erabilera	% gehigarria Irizpide sozialak	% gehigarria: Energia-efizientzia			% gehigarria: Jarduketa integratua
		A azken kalifikazioa	B azken kalifikazioa	2 letrako edo gehiagoko gehikuntza	
Etxebizitza.	% 15	% 15	% 10	% 5	% 20
Gainerako erabilerak.	% 0	% 15	% 10	% 5	% 20

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

2. *jarduketa tipologia. Energia-efizientziaren eta energia berriztagarrien hobekuntza berokuntzako, klimatizazioko, aireztapeneko eta etxeko ur beroko instalazioetan*

2.1 azpitipologia Energia konbentzionalaren ordez eguzki-energia termikoa baliatzea

1.– Helburua. Energia konbentzionaleko kontsumoa murriztea eguzki-energia termikoa erabiliz etxeko ur beroa produzitzeko, berokuntzarako, hozketarako edota igerilekuen klimatizaziorako.

2.– Jarduketa diruz lagungarriak. Jarduketa diruz lagungarriak izango dira dauden eraikinetako etxeko ur beroa produzitzeko, berokuntzarako, hozketarako edota igerilekuen klimatizaziorako energia konbentzionalaren ordez eguzki-energia termikoa baliatzen duten jarduketak.

Diruz lagungarriak izango dira eguzki-instalazio berriak edo dauden instalazioetako birgaikuntzak edota instalazioen zabalkuntzak, betiere ordepena edo eguzki-sorkuntzako potentziaren gehikuntza badakarte eta dauden eraikinetan egiten badira. Diruz lagungarritzat hartzen dira, halaber, hiri-arloko klimatizazio-sare bati zerbitzua ematen dioten eguzki-instalazio termikoak.

Honako baldintza hauek bete beharko dituzte eguzki-instalazio termikoek:

a) Aplikatzekoa zaion indarreko «Eguzki Instalazio Termikoaren» definizioari erantzungo diote.

b) Instalazioek eta ekipoek Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan eta eguzki-instalazio termiketarako Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren Ikuskapena 2009 Baldintza Teknikoen Orrian ezarritako indarreko araudia beteko dute, baita ASITek landutako eta Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioaren webgunean eskuragarri dagoen «Eguzki Energia Termikoaren ASIT Gida» Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren onetsitako dokumentuan ezarritakoa ere.

c) Eguzki-kaptadoreek Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioaren ziurtapena behar dute.

d) $9 \text{ W}/(\text{m}^2 \text{ } ^\circ\text{C})$ -tik beherako koefiziente globaleko kaptadoreak onartuko dira soilik.

3.– Laguntzen zenbatekoa. Horrelako jarduketetarako programaren barruan eman beharreko laguntzak kontraprestaziorik gabeko diru-entregak izango dira, ondoren adierazten den bezala.

Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa Oinarrizko Laguntzaren eta kasu bakoitzari egokitu ahalko litzaiokeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da, ondorengo idatz-zatietan ezartzen denaren arabera eta, edozein kasutan ere, estatuko laguntzen araudian ezartzen diren mugen mende egongo da zenbateko hori:

1) Oinarrizko laguntza. Jarduketaren kostu hautagarriaren ehuneko hogeita hamabost (% 35) izan ahalko da laguntzaren zenbatekoa.

2) Irizpide sozialagatiko, energia-efizientziagatiko edo jarduketa integratuagatiko Laguntza Gehigarria. Oinarrizko laguntzarako laguntza gehigarri bat lortu ahalko da, betiere horretarako behar diren baldintzak betetzen badira, irizpide soziala, energia-efizientzia edo jarduketa integratua gertatzen den kasuetan, oinarri hauetako **1.1 eranskinean** kontzeptu horien inguruan ematen den definizioari jarraikiz. Laguntza gehigarriaren kalkulua hiru irizpideen arteko bakoitzaren ehunekoa gehituz egingo da, dagokionaren arabera. Energia-efizientziako irizpidearen kasuan hiru ehunetako bat soilik aplikatu ahalko da, dela A edo B energia-kalifikazioa edo bi letratako edo gehiagoko gehikuntza. Jarduketa tipologia honi dagozkion laguntza gehigarriaren balioak honako koadro honetan adierazten dira, zeinean ehunekoak jarduketa tipologia honi dagozkion kostu hautagarrien baturari buruzkoak diren:

Eraikinen erabilera	% gehigarria: Irizpide sozialak	% gehigarria: Energia-efizientzia			% gehigarria: Jarduketa integratua
		A azken kalifikazioa	B azken kalifikazioa	2 letrako edo gehiagoko gehikuntza	
Etxebizitza.	% 10	% 10	% 5	% 0	% 15
Gainerako erabilerak.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 15

Oinarriak

34/19

Euskadin dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketak egiteko laguntzen programa - PREE programa.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

Jarduketa honi egokituko zaion laguntza kalkulatzeari begira, gehieneko kostu hautagarri bat ezarriko da, kasuaren araberako ondorengo adierazpenen ondoriozkoa, non Ps (kW) eguzki-instalazio termiko berriaren potentzia den. Hiru jarduketa tipologia desberdin ezartzen dira hornitutako aplikazioaren arabera:

- S1 kasua: Etxeko ur beroa produzitzeko edota estali gabeko edota estalpeko igerilekuen klimatizazioa gauzatzeko eguzki-instalazioak. Gehieneko kostu hautagarria (€) = 1.000 x Ps(kW)
- S2 kasua: Berokuntzarako eguzki-instalazioak, eta aukeran S1 kasuan bildutako aplikazioak. Gehieneko kostu hautagarria (€) = 1.500 x Ps (kW)
- S3 kasua: Berokuntzarako eta hozketarako eguzki-instalazioak, eta aukeran S1 kasuan bildutako aplikazioak. Gehieneko kostu hautagarria (€) = 1.850 x Ps (kW)

2.2 azpitipologia Energia konbentzionalarren ordez energia geotermikoa baliatzea.

1.– Helburua. Dauden eraikinetako energia konbentzionaleko kontsumoa murriztea energia geotermikoa erabiliz honako erabilera hauetako baterako edo bat baino gehiagorako: berokuntza, klimatizazioa, etxeko ur beroa eta igerilekuen klimatizazioa.

2.– Jarduketa diruz lagungarriak. Jarduketa diruz lagungarriak izango dira berokuntzako, klimatizazioko, etxeko ur beroa produzitzeko edo igerilekuen klimatizaziorako instalazioetan egindakoak, sorkuntza-sistema eraikinean bertan edo eraikinetik kanpo kokatzen bada ere, dauden eraikinen arteko bat edo bat baino gehiago hornituz, betiere energia konbentzionaleko instalazioak ordezkatzen badituzte, berokuntzako/klimatizazioko sareen aldakuntza barnean hartuz, energia geotermikoa erabiltzen duten instalazioak baliatuz.

Diruz lagungarria izateko, instalazio geotermiko berriaren potentzia termiko nominalak edo haren gainean jarduten den egungo instalazio geotermikoarenak 12 kW-tik gorakoa izan behar du.

Instalazio geotermikoen honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte egindako instalazioek, eta zirkuitu itxiko truke geotermikoko sistemen kasurako, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak argitaratutako Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren «Zirkuitu itxiko truke geometrikoko sistemen diseinuko gida teknikoak» onetsitako dokumentua, eta Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren Dokumentuen Erregistro Ofizialean eskuragarri dagoena Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioaren webgunean, baita aplikatzekoak zaien beste edozein legeria ere.

b) Bero-ponpa duten ekipoen jarduketarako, eraikinaren efizientzia-ziurtagiria lantzeko teknikari eskudun batek erabilitako urtaroko errendimendu-balioak bero-ponparen sasoiko batez besteko errendimenduarekin uztartu behar dira, eta honako dokumentu hauetakoren baten bidez zehaztuta eta justifikatuta egon behar dute:

– Bero-ponparen fitxa teknikoak edo etiketa energetikoa, zeinean urtaroko batez besteko errendimenduak agertuko dira;

– EUROVENT ziurtagiria edo antzekoa;

– teknikari eskudunak izenpetutako txostena. Txostenerako Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren: «Eraikinetan beroa produzitzeko urtaroko batez besteko prestazioak» onetsitako dokumentua erabili ahaliko litzateke.

Geotermiako instalazioen kasuan, kostu hautagarritzat hartuko dira, II. ERANSKINEAN adierazitakoez gain, honako kontzeptu hauek: ekipotan egindako inbertsioa, instalazioaren egikaritzapen-kostuak, lotutako obra zibila eta beharrezko instalazio osagarriak, eta horrekin batera instalazioaren diseinua egin baino lehenagoko alde aurreko azterlan, entsegu, zundaketa eta simulazioak egitearen kostua, baita zundaketa, indusketa, zimentazio, lubaki, urbanizazio eta instalazio horien ustiapenerako beharrezkoak diren gainerako elementuak ere, bero-/hotz-sareak eta truke-estazioak ahaztu gabe.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

3.– Laguntzen zenbatekoa. Horrelako jarduketetarako programaren barruan eman beharreko laguntzak kontraprestaziorik gabeko diru-entregak izango dira, ondoren adierazten den bezala.

Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa Oinarrizko Laguntzaren eta kasu bakoitzari egokitu ahalko litzaiokeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da, ondorengo idatz-zatietan ezartzen denaren arabera eta, edozein kasutan ere, estatuko laguntzen araudian ezartzen diren mugen mende egongo da laguntza-zenbateko hori:

1) Oinarrizko laguntza. Jarduketaren kostu hautagarriaren ehuneko hogeita hamabost (% 35) izango da laguntzaren zenbatekoa.

2) Irizpide sozialagatiko, energia-efizientziagatiko edo jarduketa integratuagatiko Laguntza Gehigarria. Oinarrizko laguntzarako laguntza gehigarri bat lortu ahalko da, betiere horretarako behar diren baldintzak betetzen badira, irizpide soziala, energia-efizientzia edo jarduketa integratua gertatzen den kasuetan, oinarri hauetako **1.1 eranskin**ean kontzeptu horien inguruan ematen den definizioari jarraikiz. Laguntza gehigarriaren kalkulua hiru irizpideen arteko bakoitzaren ehuneko gehituz egingo da, dagokionaren arabera. Energia-efizientziako irizpidearen kasuan hiru ehunetako bat soilik aplikatu ahalko da, dela A edo B energia-kalifikazioa edo 2 letratako edo gehiagoko gehikuntza. Horretaz gain, % 5 gehitu ahalko da laguntza gehigarria etxebizitza-erabilerako eraikinetarako energia-efizientziako irizpidean, betiere eguzki-instalazio fotovoltaiko bat edo sorkuntza elektrikoko beste teknologia berriztagarri bat egiten bada, metaketarekin edo gabe, eraikinaren autokontsumora bideratutakoa instalatutako potentzia bero-ponpa geotermikoko ekipoei eskatutakoaren % 30 denean gutxienez.

Jarduketa tipologia honi dagozkion laguntza gehigarriaren balioak honako koadro honetan adierazten dira, zeinean ehunekoak jarduketa tipologia honi dagozkion kostu hautagarrien baturari buruzkoak diren:

Eraikinaren erabilera	% gehigarria: Irizpide sozialak	% gehigarria: Energia-efizientzia			% gehigarria: Jarduketa integratua
		A azken kalifikazioa	B azken kalifikazioa	2 letrako edo gehiagoko gehikuntza	
Etxebizitza.	% 10	% 0*	% 0*	% 0*	% 5
Gainerako erabilerak.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 15

* Horretaz gain, etxebizitza-erabilerako eraikinetako Energia Efizientziagatiko % gehigarria % 5 izango da sorkuntza elektrikoko instalazio berriztagarri bat ere egiten bada, metaketarekin edo gabe, eraikinaren autokontsumora bideratutakoa instalatutako potentzia bero-ponpa geotermikoko ekipoei eskatutakoaren % 30 denean gutxienez.

Jarduketa honi egokituko zaion laguntza kalkulatzeari begira, gehieneko kostu hautagarri bat ezarriko da, kasuaren araberrako ondorengo adierazpenen ondoriozkoa, non P (kW) sorgailuaren potentzia termikoa den.

– G1 kasua: Ur beroa sortzeko edota berokuntzako/hozketako instalazioak zirkuitu irekian, eraikin baterako: Gehieneko kostu hautagarria (€) =1.600 * P(0,83).

– G2 kasua: Ur beroa sortzeko edota berokuntzako/hozketako instalazioak zirkuitu itxian truke bertikalarekin, zundaketekin, eraikin baterako: Gehieneko kostu hautagarria (€) =4.000 * P(0,83).

– GR1 kasua: Ur beroa sortzeko edota berokuntzako/hozketako instalazioak zirkuitu irekian, beroa edota hotza zentralizatuta sortzeko, erabiltzaileei zuzendutako banaketa- eta truke-sarea barnean hartuz, zerbitzua eraikin bat baino gehiagori emango diena: Gehieneko kostu hautagarria (€) =2.600 * P(0,83).

– GR2 kasua: Ur beroa sortzeko edota berokuntzako/hozketako instalazioak zirkuitu itxian, beroa edota hotza zentralizatuta sortzeko, erabiltzaileei zuzendutako banaketa- eta truke-sarea barnean hartuz, zerbitzua eraikin bat baino gehiagori emango diena: Gehieneko kostu hautagarria (€) =5.000 * P(0,83).

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

*Una manera de hacer Europa*2.3 azpitipologia Energia konbentzionalaren ordeztu biomasa baliatzea instalazio termikoetan.

1.– Helburua. Dauden eraikinetako energia konbentzionaleko kontsumoa murriztea biomasa erregai gisa erabiliz honako erabilera hauetarako: berokuntza, klimatizazioa eta etxeko ur beroa, eta igerilekuen klimatizazioa.

2.– Jarduketa diruz lagungarriak. Jarduketa diruz lagungarriak izango dira berokuntzako, klimatizazioko, etxeko ur beroa eta igerilekuen klimatizazioko instalazioetan egindakoak, keak/ura trukatzeko sistemak barnean hartzen dituztenak eta eraikinetan dauden energia konbentzionaleko instalazioak ordezkatzeko dituztenak, eraikin bat baino gehiagori zerbitzua ematen dioten berokuntza zentralizatutako sareetako inbertsioak barnean hartuta.

Honako eskakizun hauek bete beharko dituzte biomasako instalazioek:

a) Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte egindako instalazioek, baita Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuak argitaratutako Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren «Gida Teknikoa: Eraikinetako biomasa termikoko instalazioak» onetsitako dokumentuan ezarritakoak ere, eta Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren Dokumentuen Erregistro Ofizialean eskuragarri dagoena Trantsizio Ekologiko eta Erroka Demografikorako Ministerioaren webgunean, baita aplikatzeko zaien beste edozein legeria ere.

b) Honako eskakizun hauek bete beharko dituzte 1 MW baino gutxiagoko galdarak barnean hartzen dituzten erabilera ez-industrialeko biomasako instalazioetarako laguntzak eskatzen dituzten onuradunak:

– Ekipoaren fabrikatzailearen akreditazio bat aurkeztea non egiaztatzen den urtaroko energia-efizientziari eta erabiliko den erregairako emisioei lotutako eskakizunak beteko direla, eta kontuan izanda betiere eskakizun horiek ezin ahalko direla izan indarreko Ekodiseinuari buruzko Erregelamenduan definitutakoak baino exijentzia-maila txikiagokoak, hau da, 2015/1189 (EB) Erregelamendua, Batzordearena, 2015eko apirilaren 28koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/125/EE Zuzentaraua garatzen duena, erregai solidoko galdarek aplikagarriak zaizkien diseinu ekologikoko eskakizunei dagokienez.

– **12. oinarrian** ezarritako betebeharreko eskakizun gehigarri gisa, onuradunak neurri horretarako dokumentu-erregistro nahikoa atxikiko du, galdaran erabilitako erregaiak erakunde independente akreditatu batek emandako ziurtagiria duela akreditatzea ahalbidetuko duena, A1 klasearen betetzeari buruzkoa UNE-EN-ISO 17225-2 arauan ezarritakoaren arabera, UNE-EN-ISO 17225-4 arauaren 1. klaseari buruzkoa, 164003 arauaren A1 klaseari buruzkoa edo 164004 arauaren A1 klaseari buruzkoa. Bost urteko epean atxikiko da erregistro hori.

Biomasa instalazioen kasuan, honako kontzeptu hauek hartuko dira kostu hautagarritzat: siloak, beroa/hotza sortzeko sistemak, galdara-gelaren aldaketa, biomasako barne-garraioko sistemak, keak eta instalazioa ustiatzeko beharrezkoak diren gainerako elementuak tratatzeko eta emititzeko sistemak, eta truke-estazioak.

3.– Laguntzen zenbatekoa. Horrelako jarduketarako programaren barruan eman beharreko laguntzak kontraprestaziorik gabeko diru-entregak izango dira, ondoren adierazten den bezala.

Kontraprestaziorik gabeko laguntza ekonomikoa. Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa Oinarrizko Laguntzaren eta kasu bakoitzari egokitu ahalko litzaiokeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da, ondorengo idatz-zatietan ezartzen denaren arabera eta, edozein kasutan ere, estatuko laguntzen araudian ezartzen diren mugen mende egongo da laguntza-zenbateko hori:

1) Oinarrizko laguntza. Jarduketaren kostu hautagarriaren ehuneko hogeita hamabost (% 35) izango da laguntzaren zenbatekoa.

2) Irizpide sozialagatiko, energia-efizientziagatiko edo jarduketa integratuagatiko Laguntza Gehigarria. Oinarrizko laguntzarako laguntza gehigarri bat lortu ahalko da, betiere horretarako behar diren baldintzak betetzen badira, irizpide soziala, energia-efizientzia edo jarduketa integratua gertatzen den kasuetan, oinarri hauetako **1.1 eranskinean** kontzeptu horien inguruan ematen den definizioari jarraikiz.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

Laguntza gehigarriaren kalkulua hiru irizpideen arteko bakoitzaren ehuneko gehituz egingo da, dagokionaren arabera. Energia-efizientziako irizpidearen kasuan hiru ehunetako bat soilik aplikatu ahal da, dela A edo B energia-kalifikazioa edo 2 letratako edo gehiagoko gehikuntza. Jarduketa tipologia honi dagozkion laguntza gehigarriaren balioak honako koadro honetan adierazten dira, zeinean ehunekoak jarduketa tipologia honi dagozkion kostu hautagarrien baturari buruzkoak diren:

Eraikinaren erabilera	% gehigarria: Irizpide sozialak	% gehigarria: Energia-efizientzia			% gehigarria: Jarduketa integratua
		A azken kalifikazioa	B azken kalifikazioa	2 letrako edo gehiagoko gehikuntza	
Etxebizitza.	% 10	% 0	% 0	% 0	% 10
Gainerako erabilerak.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 10

Jarduketa honi egokituko zaion laguntza kalkulatzeari begira, gehieneko kostu hautagarri bat ezarriko da, kasuaren araberrako ondorengo adierazpenen ondoriozkoa, non P (kW) sorgailuaren potentzia termikoa den:

– B1 kasua: Ur beroa sortzeko edota berokuntzako instalazioak eraikin batean. Gehieneko kostu hautagarria (€) =880 x P(0,87).

– B2 kasua: Ur beroa sortzeko edota berokuntzako eta hozketako instalazioak eraikin batean. Gehieneko kostu hautagarria (€) =1.540 x P(0,87).

– BR1 kasua: Beroa sortzeko instalazio zentralizatuak, erabiltzaileei zuzendutako banaketa- eta truke-sarea barnean hartuz, zerbitzua eraikin bat baino gehiagori emango dena. Gehieneko kostu hautagarria (€) =1.250 x P(0,87).

– BR2 kasua: Beroa eta hotza sortzeko instalazio zentralizatuak, erabiltzaileei zuzendutako banaketa- eta truke-sarea barnean hartuz, zerbitzua eraikin bat baino gehiagori emango dena. Gehieneko kostu hautagarria (€) =2.124 x P(0,87).

– BR3 kasua: Beroa sortzeko instalazio zentralizatuak, erabiltzaileei zuzendutako banaketa- eta truke-sarea barnean hartuz, baita hotz-produkzio deszentralizatua ere (energia berriztagarriak hornitu behar du hotz-produkzio deszentralizatua), zerbitzua eraikin bat baino gehiagori emango dena. Gehieneko kostu hautagarria (€) =2.374 x P(0,87).

2.4 azpitipologia 2.1-2.3 tarteko azpitipologietan barne hartuta ez dauden sorkuntza-sistemen energia-efizientziaren hobekuntza.

1.– Helburua. Dauden etxebizitzetako instalazio termikoetako berokuntzako, klimatizazioko, aireztapeneko, etxeko ur beroaren produkzioko eta igerilekuen klimatizazioko energia-kontsumoa murriztea, 2.1-2.3 tarteko idatz-zatietan barne hartu gabeko sorkuntza-azpizisteman egindako jarduketek bidez.

2.– Jarduketa diruz lagungarriak. Jarduketa diruz lagungarritzat hartuko dira berokuntzako, klimatizazioko, aireztapeneko eta etxeko ur beroaren produkzioko instalazio termikoetan egindakoak, eraikinetako pertsonen ongizate termikoko eta higieneko eskariari erantzuteko bideratutakoak, baita igerilekuen klimatizazioa ere, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduen aplikazioaren esparruaren barruan.

Berritzen den instalazio termikoak bete beharreko energia-efizientziako gutxieneko eskakizunak indarreko Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan jasotakoak dira.

Honako hauek izango dira energia-jarduketa diruz lagungarriak:

a) Egungo sorkuntza termikoko ekipoak ordeztzea dakarten energia-efizientzia handiko aerotermiako eta hidrotermiako soluzioak, berokuntzako, klimatizazioko eta etxeko ur beroa produzitzeko instalazio termikoetan energia-efizientzia hobetzea ahalbidetzen dutenak.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

«Lehenetsitakoak» ez diren eraikinaren efizientzia-ziurtagiria egiteko teknikari eskudunak erabilitako errendimendubalio guztiak (EER, COP, eta abar) honela justifikatu beharko dira: hautatutako balioa «zenbatetsia» edo «ezaguna» bada, CE ikurra edo fitxa tekniko edo etiketa energetikoa edo EUROVENT ziurtagiria edo antzekoa aurkeztu beharko du, eta, edozein kasutan ere, ziurtagirian erabilitako balioak jasotzen dituen dokumentua ere aurkeztu beharko da.

b) Aireztapen naturaleko eta bortxatuko sistemak.

c) Kanpo-aire bidezko doako hozte-sistemak.

d) Beroa eta erauzketa-areia berreskuratzeko sistemak, eta hondar-energien aprobetxamendua.

e) Instalazioaren energia-kontsumoa murrizten duten lurruntze-teknikak erabiltzen dituzten sistemak: Lurruntze-hozketa, lurruntze-kondentsazioa, kondentsazio-airearen lurruntze aurre-hozketa, erauzketa-airearen beroa berreskuratzearen aurreko zuzeneko eta zeharkako lurruntze-hozketa, eta abar.

Ez da kostu hautagarritzat hartuko galdara bat jatorri fosileko erregaia erabiltzen duen beste batekin ordezteta.

3.– Laguntzen zenbatekoa. Horrelako jarduketetarako programaren barruan eman beharreko laguntzak kontraprestaziorik gabeko laguntza ekonomikoak izango dira, ondoren adierazten den bezala.

Kontraprestaziorik gabeko laguntza ekonomikoa. Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa Oinarrizko Laguntzaren eta kasu bakoitzari egokitu ahalko litzaiokeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da, ondorengo idatz-zatietan ezartzen denaren arabera eta, edozein kasutan ere, estatuko laguntzen araudian ezartzen diren mugen mende egongo da laguntza-zenbateko hori:

1) Oinarrizko laguntza. Jarduketaren kostu hautagarriaren ehuneko hogeita hamabost (% 35) izango da laguntzaren zenbatekoa.

2) Irizpide sozialagatiko, energia-efizientziagatiko edo jarduketa integratuagatiko Laguntza Gehigarria. Oinarrizko laguntzarako laguntza gehigarri bat lortu ahalko da, betiere horretarako behar diren baldintzak betetzen badira, irizpide soziala, energia-efizientzia edo jarduketa integratua gertatzen den kasuetan, oinarri hauetako **1.1 eranskinean** kontzeptu horien inguruan ematen den definizioari jarraikiz. Laguntza gehigarriaren kalkulua hiru irizpideen arteko bakoitzaren ehuneko gehituz egingo da, dagokionaren arabera. Energia-efizientziako irizpidearen kasuan hiru ehunetako bat soilik aplikatu ahalko da, dela A edo B energia-kalifikazioa edo 2 letratako edo gehiagoko gehikuntza. Jarduketa tipologia honi dagozkion laguntza gehigarriaren balioak honako koadro honetan adierazten dira, zeinean ehunekoak jarduketa tipologia honi dagozkion kostu hautagarrien baturari buruzkoak diren:

Eraikinaren erabilera	% gehigarria: Irizpide sozialak	% gehigarria: Energia-efizientzia			% gehigarria: Jarduketa integratua
		A azken kalifikazioa	B azken kalifikazioa	2 letrako edo gehiagoko gehikuntza	
Etxebizitza.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 0
Gainerako erabilerak.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 0

2.5 azpitipologia Instalazio termikoetako banaketako, erregulazioa, kontroleko eta emisioko azpisistemekn energia-efizientziaren hobekuntza.

1.– Helburua. Dauden etxebizitzetako instalazio termikoetako berokuntzako, klimatizazioko, aireztapeneko, etxeko ur beroaren produkzioko eta igerilekuen klimatizazioko energia-kontsumoa murriztea, banaketako, erregulazioko, kontroleko eta emisioko jarduketek bidez.

2.– Jarduketa diruz lagungarriak. Jarduketa diruz lagungarriak izango dira berokuntzako, klimatizazioko, aireztapeneko eta etxeko ur beroaren produkzioko instalazio termikoetan egindakoak, eraikinetako ongizate termikoko eta higieneko eskariari erantzuteko bideratutakoak, baita igerilekuen klimatizazioa ere, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduen aplikazioaren esparruaren barruan.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

Berritzen den instalazio termikoak bete beharreko energia-efizientziako gutxienezko eskakizunak indarreko Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduan jasotakoak dira.

Honako hauek izango dira energia-jarduketa diruz lagungarriak:

a) D1 kasua: Eraikinetako instalazio termikoetan energia-efizientzia hobetzea ahalbidetzen duten jarduketa guztiak, banaketa-sistemei, erregulazio- eta kontrol-sistemei, elementu terminalei eta abarri dagokienez, eta jarduketa horien artean bilduta daude izaera orientatiboarekin eta ez-mugatzailearekin zerrendatzen direnak:

– Zenbait faktorearen arabera energia aurrezten duten ekipo edota instalazioetako kontrol- eta erregulazio-sistemak, hala nola kanpo-tenperaturaren aldaketa, presentzia edo erabiltzailearen premiak.

– Bereziki, energia-jarduketa diruz lagungarritzat hartuko dira bitarteko digitalen bidezko elementuen urrutiko kontrola edo kontrol automatikoa ahalbidetzen duten elementuak, honako instalazio hauetarako, besteak beste:

- Eraikineko toldoen, pertsianen edo gortinen kontrol automatikoko sistemak, eguzki-argiaren aprobetxamendu optimoa ahalbidetuko dutenak.
- Klimatizazioaren erregulazio-sistemak, eraikinaren tenperatura kanpo-tenperaturaren, eguneko orduaren, gunearen edo pertsonen presentziaren arabera egokituko dutenak.
- Etxetresna elektrikoak programatzeko eta abiarazteko urrutiko kontroleko edo kontrol automatikoko sistemak.
- Klimatizazio-sistemen energiaren behar ez bezalako erabilera posibleez ohartarazten diguten leihoen irekiera eta itxiera detektatzeko sistema.

AENOR EA0026:2006 Etxebizitzetako sistema domotikoen instalazioak ziurtagiria daukaten jarduketak hartuko dira halakotzat, bereziki.

– Eraikinetako etxeko ur beroa hornitzeko kudeaketa elektronikoko sistemak, etxeko ur beroaren eta energiaren kontsumoa kontrolatzea, uneko gehieneko emaria mugatzea, gehieneko erabilera bolumena kontrolatzea eta etxebizitza edota egoitza bakoitzeko hornidura-mozketa ere kontrolatzea ahalbidetuko dutenak.

– Kontsumo-puntuari etxeko ur beroa kontrolatzeko eta kudeatzeko kanilak, tenperaturaren eta emariaren erregulazio optimoa eta bizkorra ahalbidetuko dutenak, eta erabiltzaileak zuzenean kontrolatu ahalko dituenak, eta, aldi berean, sistema elektronikoen bidez kontrolatzekoak, uneko kontsumoa, irteera-tenperatura eta kanila horien gehieneko kontsumo bolumena kudeatzeko eta kontrolatzeko. Sistema horiek sistema domotiko edo immotiko batean integratzea kontuan hartuko da jarduketetan, integrazio horrek sistema guztien arteko komunikazioa ahalbidetuko duelarik, sistemek beren artean elkar eragin dezaten eta bertatik edo urrutetik kontrolatuak izan daitezzen.

– Balbula termostatiko mekaniko edo elektronikoa UNE-EN-215 araua betetzen duten emisoreetarako bero-ekarpena erregulatzeko.

b) D2 kasua: diruz lagungarritzat hartuko dira, halaber, energiaren monitorizazio-sistemak, denbora errealekoak edo geroratutakoak, kontsumoaren informazioa erabiltzaileen beren dispositibo digitalen bidez helaraztea ahalbidetuko dutenak. Barnean hartu ahalko dituen prestazioen artean energia-kontsumo garrantzitsuenen (argiztapena, klimatizazioa, etxeko ur beroa, etxetresna elektrikoak, eta abar) banakapena dago, eta horrekin batera, kontsumo-datuak edo energia sortzearekin lotutakoak gordetzea ondoren erabiltzaileak edo erabiltzaileak baimentzen duen pertsonak kontsulta ditzan, eta dispositibo bateragarriei gauzatutako komunikazioa, estatistiken kontsulta eta abar. Kontsumo-datuak balio energetikotan zein balio ekonomikotan eta karbono dioxidoko emisiotan agertu ahalko dira.

3.– Laguntzen zenbatekoa. Horrelako jarduketarako programaren barruan eman beharreko laguntzak kontraprestaziorik gabeko laguntza ekonomikoak izango dira, ondoren adierazten den bezala.

Kontraprestaziorik gabeko laguntza ekonomikoa. Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa Oinarrizko Laguntzaren eta kasu bakoitzari egokitu ahalko litzaiokeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da, ondorengo idatz-zatietan ezartzen denaren arabera eta, edozein kasutan ere, estatuko laguntzen araudian ezartzen diren mugen mende gongo da laguntza-zenbateko hori:

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

- 1) Oinarritzko laguntza. Jarduketaren kostu hautagarriaren ehuneko hogeita hamabost (% 35) izango da laguntzaren zenbatekoa.
- 2) Irizpide sozialagatiko, energia-efizientziagatiko edo jarduketa integratuagatiko Laguntza Gehigarria. Oinarritzko laguntzarako laguntza gehigarri bat lortu ahalko da, betiere horretarako behar diren baldintzak betetzen badira, irizpide soziala, energia-efizientzia edo jarduketa integratua gertatzen den kasuetan, oinarri hauetako **1.1 eranskinean** kontzeptu horien inguruan ematen den definizioari jarraikiz. Laguntza gehigarriaren kalkulua hiru irizpideen kasuan hiru bakoitzaren ehuneko gehituz egingo da, dagokionaren arabera. Energia-efizientziako irizpidearen kasuan hiru ehunetako bat soilik aplikatu ahalko da, dela A edo B energia-kalifikazioa edo 2 letratako edo gehiagoko gehikuntza. Jarduketa tipologia honi dagozkion laguntza gehigarriaren balioak honako koadro honetan adierazten dira, zeinean ehunekoak jarduketa tipologia honi dagozkion kostu hautagarrien baturari buruzkoak diren:

Eraikinaren erabilera	% gehigarria: Irizpide sozialak	% gehigarria: Energia-efizientzia			% gehigarria: Jarduketa integratua
		A azken kalifikazioa	B azken kalifikazioa	2 letrako edo gehiagoko gehikuntza	
Etxebizitza.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 0
Gainerako erabilerak.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 0

- 3) Laguntza Gehigarria D2 kasurako. Instalazioari dagokion kostu hautagarriari ez zaio aurreko 2. idatz-zatia aplikagarria izango, D2 kasuan definitutakoari jarraikiz.

3. jarduketa tipologia. Argiztapen-instalazioen energia-efizientzia hobetzea

1.– Helburua. Dauden eraikinetako argiztapen-instalazioetan energia-kontsumoa murriztea.

2.– Jarduketa diruz lagungarriak. Honako hauek izango dira jarduketa diruz lagungarriak:

Diruz lagungarria izateko, argiztapen berriari instalatutako potentzia edo haren gainean jarduten deneko egungo instalazioarenak 10 kW-tik gorakoa izan behar du etxebizitza-eraikin kolektiboetan eta 40 kW-tik gorakoa gainerako eraikinetan.

Diruz lagungarritzat hartuko dira bizitegi tipologia kolektiboko eraikinetako eta beste edozein erabileratako eraikinetako gune erkideetako argiztapen-instalazioetako energia-efizientzia hobetzea ahalbidetzen dutenak, **4.3 oinarriaren b)** eta c) letretan barne hartutako etxebizitza kenduta, eta jarduketa horien artean bilduta daude izaera orientatiboarekin eta ez-mugatzailearekin zerrendatzen direnak:

a) Luminariak, lanparak eta ekipoa: multzoaren ordez errendimendu handiagoko luminariak, efizientzia handiagoko lanparak eta erreaktantzia elektronikoko erregulagarriak eta argiztapenean instalatutako potentzia murriztea ahalbidetzen dutenak jartzea, araututako kalitateko eta konfort bisualeko eskakizunak beteta.

b) Bertako kontrola, urrutiko kontrola edo kontrol automatikoa ahalbidetzen duten sistema eta elementuak, argiztapen-maila pizteko eta erregulatzeko bitarteko bidez: presentziaren arabera, eraikineko guneen arabera, edo argi naturalaren ekarpenak ezarritako argiztapen-mailaren erregulazioaren arabera kontrol-sistemak edukiko dituzte.

c) Argiztapen-sistemaren aldaketa: argi-puntuak birkokatzea aurreko teknologiak erabilia, urteko kontsumo elektrikoa egungo argiztapen-sistemarekiko murrizteko moduan.

d) Urrutiko kontrola edo kontrol automatikoa ahalbidetuko duten sistemak eta elementuak, kontrolatzera bideratutako instalazioen bitarteko digitalen bidez:

– Argiztapen-sistema eraginkorrak, argiztapena une bakoitzeko premietara egokituta.

- Eraikineko toldoen, pertsianen edo gortinen kontrol automatikoko sistemak, eguzki-argiaren aprobetxamendu optimoa ahalbidetuko dutenak.

– Eraikinen argiztapena pizteko eta itzaltzeko kontrol automatikoko sistemak.

Oinarriak

34/26

Euskadin dauden eraikinetan energia birgaitzeko jarduketak egiteko laguntzen programa - PREE programa.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

AENOR EA0026:2006 Etxebizitzetako sistema domotikoen instalazioak ziurtagiria daukaten jarduketak hartuko dira halakotzat, bereziki.

e) Monitorizazio-sistemak ezartzea, edozein unetan konfort-baldintzak zein diren eta energia-efizientzia hobetzearen alde egindako jarduketaren egokitasuna zein den jakitea ahalbidetuko digutenak.

Birgaitzen den argiztapen-instalazioak bete behar dituen energia-efizientziako gutxieneko eskakizunak Eraikintzaren Korde Teknikoak HE-3-Argiztapen instalazioen energia-efizientzia dokumentuan jasotakoak dira.

3.– Laguntzen zenbatekoa. Horrelako jarduketarako programaren barruan eman beharreko laguntzak kontraprestaziorik gabeko laguntza ekonomikoak izango dira, ondoren adierazten den bezala.

Kontraprestaziorik gabeko laguntza ekonomikoa. Eman beharreko laguntzaren zenbatekoa Oinarrizko Laguntzaren eta kasu bakoitzari egokitu ahalko litzaiokeen Laguntza Gehigarriaren batura izango da, ondorengo idatz-zatietan ezartzen denaren arabera eta, edozein kasutan ere, estatuko laguntzen araudian ezartzen diren mugen mende egongo da laguntza-zenbateko hori:

1) Oinarrizko laguntza. Jarduketaren kostu hautagarriaren ehuneko hamabost (% 15) izango da laguntzaren zenbatekoa.

2) Irizpide sozialagatiko, energia-efizientziagatiko edo jarduketa integratuagatiko Laguntza Gehigarria. Oinarrizko laguntzarako laguntza gehigarri bat lortu ahalko da, betiere horretarako behar diren baldintzak betetzen badira, irizpide soziala, energia-efizientzia edo jarduketa integratua gertatzen den kasuetan, oinarri hauetako **1.1 eranskinean** kontzeptu horien inguruan ematen den definizioari jarraikiz. Laguntza gehigarriaren kalkulua hiru irizpideen arteko bakoitzaren ehuneko gehituz egingo da, dagokionaren arabera. Energia-efizientziako irizpidearen kasuan hiru ehunetako bat soilik aplikatu ahalko da, dela A edo B energia-kalifikazioa edo 2 letratako edo gehiagoko gehikuntza. Jarduketa tipologia honi dagozkion laguntza gehigarriaren balioak honako koadro honetan adierazten dira, zeinean ehunekoak jarduketa tipologia honi dagozkion kostu hautagarrien baturari buruzkoak diren:

Eraikinaren erabilera	% gehigarria: Irizpide sozialak	% gehigarria: Energia-efizientzia			% gehigarria: Jarduketa integratua
		A azken kalifikazioa	B azken kalifikazioa	2 letrako edo gehiagoko gehikuntza	
Etxebizitza.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 0
Gainerako erabilerak.	% 0	% 10	% 5	% 0	% 0

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

*Una manera de hacer Europa***II. ERANSKINA****KOSTU HAUTAGARRIAK**

Hautagarritzat hartzen dira programa honen helburu energetikoak lortzeko beharrezkoak direnak, aurreko jarduketa tipologia bakoitzerako adierazitakoak eta ondoren zerrendatzen direnak:

- a) Apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuan aurreikusitako energia-efizientziako ziurtagiria teknikari eskudunak egin dezan ordaindutako ordainsari profesionalak.
- b) Laguntza-eskaeraren kudeaketa-kostuak.
- c) Laguntzako jarduketa tipologiekin lotutako proiektu teknikoan idazkuntzaren kostuak.
- d) Jarduketan zuzendaritza fakultatiboaren kostuak.
- e) Obren edota instalazioen egikaritzapen-kostuak.
- f) Ekipotan eta materialetan egindako inbertsioa.
- g) Laguntzen eskaerako eta justifikaziorako eskatutako txostenen eta gainerako dokumentazioaren idazkuntza-kostuak.
- h) Jarduketak egitearen justifikazioaren kudeaketa-kostuak.
- i) Laguntzako jarduketak behar bezala egin direla akreditatzen duen txostena, kontrol-erakunde edo kontrol-entitate batek emandakoa.
- j) Jarduketa tipologia bakoitzaren beste beharrezko partida (osagarriak edo ez) espezifiko batzuk. Partida horren barruan hartzen dira obren egikaritzapenean eta egikaritzapena amaitzean jarri beharreko kartelen kostua (737/2020 EDaren 21. artikulua).

Ez dira kostu hautagarritzat hartzen lizentziak, tasak, zergak edo tributuak. Dena den, BEZa eta IGIC zerga hautagarritzat hartu ahalko dira, betiere ezin badira berreskuratu edo osorik edo partzialki ezin badira konpentsatu.

Horri begira, laguntzaren eskaerako kudeaketa-kostutzat hartuko dira laguntzaren eskatzaileak edo azken hartzaileak bere autonomia-erkidegoarekiko kudeaketa administratibo eta dokumentala burutzeagatik enpresa edo profesional bati ordaindu ahalko lizkiokeen gastuak, eta, hori horrela, gastu horiek kostu hautagarritzat onartuak izateko, behar bezala jasota eta zehaztuta egongo dira dagokion enpresaburuarekin edo profesionalarekin formalizatutako dokumentuan edo beste kontratu bidezko eskaintza lotesle batean, eta horren kopia III. eranskinean xedatutakoari jarraikiz laguntza-eskaerarekin batera joan behar duen dokumentazioarekin batera joango da, gastu horien errealitatea justifikatuz III. eranskinean ezarritakoaren arabera, faktura independentea aurkeztuta, zeinean gastu horiek behar bezala zehaztuta jasoko diren, gastu horien ordainketa justifikatzeko eska daitekeen dokumentazioaz gain. Ez da ezin kasutan onartuko kudeaketa-gastu horiek eskatutako laguntzaren zenbatekoaren % 4 gaindi dezatela, espediente bakoitzeko 3.000 euroko mugarekin.

Era berean, eta horri dagokionez, laguntzako jarduketak egin izanaren justifikazioaren kudeaketa-gastutzat hartuko dira proiektua osatzen duten jarduketak egin izana EEERi justifikatzeko kudeaketa teknikoak, administratiboak eta dokumentala burutzeagatik enpresei edo profesionalari ordaindu ahalko lizkiokeen gastuak.

Gastuak ordaintzeko programan onartutako gehieneko kostu hautagarri totala:

- a) Jarduketak behar bezala egin direla akreditatzen duen txostena egitearen ondoriozkoak, kontrol-erakunde edo kontrol-entitate batek emandakoa,
- b) jarduketak egitearen justifikazioaren kudeaketaren ondoriozkoak eta

ezin izango du osorik eskatutako laguntzaren zenbatekoaren ehuneko zazpi gaintitu, espediente bakoitzeko 7.000 euroko mugarekin. Zerbitzu horien burutzapena eta fakturazioa justifikazio-dokumentazioa aurkeztzeko emandako aldiari egin ahalko da.

Ez da hautagarritzat hartuko aurrekoak ez bezalako ezin kostu, ezta laguntzaren azken hartzaileari programa hau indarrean hasten den data baino lehen fakturatu zaion ezin kostu ere.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

*Una manera de hacer Europa***III. ERANSKINA****ESKAERA-FASEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Laguntza-eskaerarekin batera, ERANSKIN honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da, hala badagokio, 737/2020 EDko 10. artikuluekin zerikusia duena barne, baldin eta Europako funtsekin batera finantzatutako jarduketa bada.

1.– Oro har:

a) Eskatzailearen ordezkariaren NAN/AIZ dokumentuaren kopia, eskaera erakunde juridiko bat ordezkatzuz edo jabeen erkidego bat edo elkarte bat ordezkatzuz aurkezten ote duen adierazita.

Eskatzaileak autonomo izaerakoak izanez gero, Gizarte Segurantzako langile autonomoen erregimen berezian kotizatzen duten dokumentazio ofiziala aurkeztu beharko dute.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, eskatzailearen ordezkariak sinatua baldin eta erakunde juridiko edo jabeen erkidego zein elkarte baten izenean jarduten badu, non zehatz-mehatz jasoko den jarduketaren eskatzaileak/ek:

1) Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako egoeretako batean ez daudela, esanbidez adierazita ez dutela beste dirulaguntza edo laguntzarik itzultzeko betebeharrak edo betebeharrak hori behar bezala bete dutela, uztailearen 21eko 887/2006, Errege Dekretuak onartutako azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduko 21. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

2) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez egunean daudela. Uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduko 18. eta 19. artikuluetan aipatutako adierazpen edo dokumentuak aurkezteko betebeharrak ez badute, salbuespen horren lege-oinarria aipatu beharko da, espresuki. Adierazpen edo dokumentu horiek aurkezteko betebeharrak ez badute, aldiz, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela egiaztatzeko ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

3) Ez dutela jarduketa edo xede bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, edo, eskatu badituzte, eskatutako eta, hala badagokio, lortutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko dute, baita laguntza eman duen Administrazio, erakunde edo entitate publikoaren izena ere.

4) Hala badagokio, ordezkatzuten enpresa ez dagoela krisian, krisian dauden enpresen salbamendu eta berregituraketarako estatu-laguntzei buruzko Erkidegoko Zuzenbideetan ezarritakoaren arabera (Batzordearen 2014/C 249/1 komunikazioa, 2014ko uztailearen 31koa).

c) Jarduketa eskatu duten jabeak eraikinaren jabeak direla egiaztatzen duen dokumentua, non eta jarduketaren eskatzailea jabeen erkidego bat edo erkidego elkarte bat ez den, uztailearen 21eko 49/1960 Legearen 5. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eraturia, kasu horretan, ondorengo azpiatalean ezarritakoa bete beharko delarik. Xede horretarako, honako hauek aurkez daitezke. Katastroko ziurtagiri elektronikoa, eraikinaren titulartasuna egiaztatzen duena, jabetzaren erregistroaren ziurtagiria edo ohar soila, edo bestela, higiezinaren erosketa frogatzen duen egintza, ekitaldi edo negozio juridikoaren egiaztargiriak aurkeztea. Dokumentu hori publikoa (eskritura publikoa) edo pribatua izan daiteke, baldin eta argi eta garbi jasotzen bada data eta esku-hartzaileak egiazkoak direla, eta, hala badagokio Kode Zibilarren 1261. artikuluan aipatutako betekizun guztiak betetzen direla. Jarduketaren eskatzailea jabea ez bada, laguntzaren xede den jarduketari dagozkion obrak egikaritzeko eskumen espresua egiaztatzen duen dokumentazioa edo kontratua ere aurkeztu beharko da: errentamendu-kontratua, ustiapen-kontratua, etab.

d) Egiaztatzen dituen jarduketak aurrera eramango diren higiezinaren katastro-datuak, etxebizitza-erabileraren edo bestelako erabileren kontsulta deskribatzaile eta grafikoa, laguntzaren zenbatekoa zehazteko erabileraren eta eraikuntza-urtearen arabera, azken horrek 2007aren aurrekoa izan behar duelarik.

e) Eskatzaileak (jabeen erkidegoen kasuan, presidentek) sinatutako justifikazio-txostena, non eskatutako laguntzari dagokion jarduketa tipologia adieraziko den, jarduketa diruz lagungarriak deskribatuko diren, kostu hautagarria justifikatuko den, eta eskatutako laguntzaren gehieneko zenbatekoa adieraziko den.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

f) Eraikinak une honetan duen egoeraren energia-efizientziari buruzko ziurtagiria, apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuko eraikinen energia-efizientzia ziurtatzeko oinarritzko prozeduraren 6. artikuluko ezarritako edukiarekin, eskumeneko teknikariak sinatua eta autonomia-erkidegoko eskumeneko organoaren erregistroan erregistratua.

g) Laguntza-eskaeraren xede den erreforma egin ondoren eraikinak lortuko duen energia-efizientziaren ziurtagiria, apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuaren arabera, laguntza-eskaeraren xede den proiektuak, gutxienez, karbono dioxido emisioen (kg CO₂/m² urtean) eskalan neurtutako letra baten (1) saltoa egiteko aukera emango duela frogatuz, eraikinaren hasierako energia-kalifikazioaren aldean, laguntzaren xede diren neurriak erabiliz soilik. Eskumeneko teknikari batek sinatuko du ziurtagiria, eta ez da beharrezkoa izango energia-efizientziako ziurtagiri hori dagokion autonomia-erkidegoko eskumeneko organoaren erregistroan erregistratua egotea.

Eraikina **4.7.b) Oinarrian** bildu direnetako bat bada, proposatutako jarduketek jarraikiz azken energian gutxienez ehuneko hogeitaz aurreratu dela justifikatuko duen memoria.

h) Proiektua, edo, proiektua beharrezkoa ez bada, memoria teknikoak, non egin beharreko jarduketak eta abiapuntuak egoera ongi deskribatuko diren, eskumeneko teknikariak edo, hala badagokio, instalatzaileak, sinatua. Proiektuan edo memoria teknikoan justifikatuko da, laguntza-eskaeraren xede den tipologiari aplikatzeko den Eraikintzaren Kode Teknikoaren DB-HE Energia Aurreratzeko Oinarritzko Dokumentuaren oinarritzko eskakizunak betetzen direla.

i) Jarduketak egikaritzeko ardura hartuko duten enpresen aurrekontua, behar bezala xehatua, Programa indarrean hasi ondoko datarekin.

j) Babes publikoko erregimen baten eraginpeko etxebizitzaren kalifikazioa dutenez irizpide sozialaren arabera laguntza osagarri baten jaso dezaketen kasuan, erakunde kudeatzaileak edo jabeen erkidegoko autonomia-erkidegoko ziurtagiri bat edo baliokide bat aurkeztu beharko dute, etxebizitzek edo kalifikazio hori lortu zutelako egiaztatzeko.

k) Etxebizitza Berroneratzeko eta Berritzeko Gune baten barruan egonik irizpide sozialaren arabera laguntza osagarri baten jasotzen dutenen kasuan, jabeen erkidegoak edo organo kudeatzaileak egiaztatu beharko du, autonomia-erkidegoaren ziurtagiri baten bitartez, birgaitzearen xede den etxebizitza Berroneratzeko eta Berritzeko Gune baten barruan dagoela.

l) Eskatzaileek gizarte segurantzaren eta zerga betebeharraren ordainketak bideratuta dauzkatala egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

m) Eskatzaileak enpresa izaerakoak izanez gero, 651/2014 Erregelamenduaren ondorioetarako:

- Gizarte Segurantzak emandako ziurtagiria; bertan, enpresako langile kopuruari buruzko informazioa azaldu beharko da.
- Urteko negozio bolumena edo urteko balantze orokorra egiaztatzen duen dokumentua.
- Inbertsio «konbentzional» edo «estandar» izenekoaren kostuaren kalkulua, 651/2014 Erregelamenduan xedatutakoa betez.

2.- Espezifikoki, jarduketaren eskatzailea uztailaren 21eko 49/1960 Legearen 5. artikuluko ezarritakoaren arabera eraturako jabeen erkidego bat edo jabeen erkidegoen elkarte bat baldin bada:

a) Jabeen erkidegoaren edo jabeen erkidegoen elkartearen identifikazio fiskaleko dokumentuaren kopia (IFZ).

b) Higiezinaren jabe-batzarraren akordioaren ziurtagiria, erkidegoko idazkariak edo administratzaileak emana eta sinatua presidentearen oniritziarekin, behar bezala hartutako erabaki hauek espresuki jasota:

1) Lehendik dagoen eraikinaren energia birgaitzeko behar diren obrak egin daitezela onartzea, jarduketaren deskribapen orokor bat eta egikaritzapenerako onartutako aurrekontua jasota.

2) Programa honen barruan EEEri laguntza eskatzeko ekimena onartzea, presidenteari eskumena emanez laguntza izapidetzeko gestioak egiteko ordezkaria izan dadin.

c) Higiezinaren jabe-batzarraren akordioari buruzko ziurtagiria, erkidegoaren idazkariak edo administratzaileak sinatua eta presidentearen oniritziarekin, non jabeen erkidegoko presidentearen, administratzailearen eta/edo idazkariaren izendapena onartzen den.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

d) Ziurtagiria, jabeen erkidegoko idazkariak edo administratzaileak emana eta sinatua, eta presidentearen oniritziarekin, jabeen zerrenda barne, dagozkien partaidetza-kuotak eta eraikina osatzen duten etxebizitzien kopuru osoa adierazita.

e) Erkidegoko kide bakoitzari dagozkionez eta banan-banan, eranskin honetako 1. atalean horietako bakoitzarentzat ageri den dokumentazioa.

3.– Espezifikoki, jarduketaren eskatzaileak jarduketaren xede den eraikinaren jabeak diren pertsona fisikoen elkarteak badira, Kode Zibilaren 396. artikuluan ezarritako betekizunak biltzen eta jabetza horizontala eratzeko titulua sinatzen ez dutenak:

a) Jabe bakoitzaren identifikazio-dokumentuaren kopia (NAN/AIZ). 1. atalaren letra berean aurreikusitakoa aplikatuko da.

b) Jarduketaren egikaritzapena onartzeko, elkarte sortzeko eta ordezkaria izendatzeko bileraren akordioa. Ordezkar horrek laguntza-eskaera aurkeztuko du, haren jarraipena egingo du eta jabeekideei dagozkien betebeharrak beteko ditu. Horrez gain, ordezkariak laguntzaren xede den inbertsioa gauzatu eta justifikatuko du, eta laguntzaren eskatzailea izango da programa honen xedetarako. Dokumentu horretan zehaztu beharko da jabeekide bakoitzari dagozkion kuota, eskatutako laguntzaren xede den eraikinaren gaineko jabetzan. Jabe guztiek sinatu beharko dute dokumentua.

4.– Espezifikoki, eskatzaileak jarduketaren xede den eraikinaren jabeak diren pertsona juridikoen elkarteak edo enpresak badira, Kode Zibilaren 396. artikuluan ezarritako betekizunak biltzeaz gainera jabetza horizontala eratzeko titulua sinatu ez dutenak:

a) Jabeak diren pertsona juridiko eskatzaileen identifikazio fiskaleko dokumentuaren kopia (IFZ).

b) Erakunde bakoitza ordezkatzeko ahalorde nahikoa duen eskritura, edo, hala badagokio, eskriturak, laguntzaren eskatzaile gisa diharduen pertsona juridikoaren alde emana(k), hala badagokio, dagozkion erregistro publikoetan inskribatua(k).

c) Zenbait jaberaren elkarte bada, jarduketaren egikaritzapena onartzeko eta jabeak diren pertsona juridikoetako bat ordezkari gisa izendatzeko bileraren akordioa. Ordezkar horrek laguntza-eskaera aurkeztuko du, haren jarraipena egingo du eta jabeekideei dagozkien betebeharrak beteko ditu. Horrez gain, ordezkariak laguntzaren xede den inbertsioa gauzatu eta justifikatuko du.

5.– Espezifikoki, eskatzaileak jarduketaren xede den eraikinaren jabeak diren pertsona fisiko edo juridikoen elkarteak badira, Kode Zibilaren 396. artikuluan ezarritako betekizunak biltzeaz gainera jabetza horizontala eratzeko titulua sinatu ez dutenak, aurreko ataletan bakoitzarentzat aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

6.– Espezifikoki, eskatzailea administrazio edo erakunde publiko bat bada, atxikitako eraikin baten jabea edo erabiltzailea dena, administrazio edo erakunde publiko onuradunaren eskumeneko organoak hartutako ebazpen edo erabakiaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko da, non laguntza-programa honetan parte hartzea onartzen den, bertan jasotako konpromisoak betetzeko ardura hartuz.

7.– Espezifikoki, eskatzailea energia-zerbitzuen enpresa bat edo eraikinaren enpresa errentaria edo ustiatzailea bada:

a) Enpresaria den pertsona fisikoaren edo pertsona juridikoaren IFZaren kopia.

b) Erakundearen eskriturak eta/edo indarreko estatuak, hala badagokio, dagozkion erregistro publikoetan inskribatua(k).

b) Ordezkatzeko ahalorde nahikoa duen eskritura, laguntzaren eskatzaile gisa diharduen pertsonaren alde emana, hala badagokio, dagozkion erregistro publikoetan inskribatua, eta haren NANaren kopia.

d) Laguntzaren xede den jarduketa diruz lagungarrian Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea egiaztatzen duen indarreko dokumentuaren kopia, eta azken ordainagiria ordaindu izanaren egiaztagiraren kopia (Energia Zerbitzuen Enpresetarako).

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

e) Halakotzat jarduteko konpromisoarekiko erantzukizunpeko adierazpena, erabiltzaileei aplikatu nahi zaizkien kontratu-edukiak adierazita.

f) Eraikinaren jabearekin edo jabeekin formalizatutako kontratuaren edo kontratuen kopia, non haren errentamenduko edo ustiapeneko erlazioa egiaztatzen den, baita eskatzailea, espresuki, laguntzaren xede diren jarduketak egiteko baimenduta dagoela egiaztatzen den ere.

8.– Espezifikoki, eskatzailea berriztagarrien erkidego bat edo energiako herritarren erkidego bat bada, hartzaile motaren arabera eskatutako dokumentazioa eskatuko da, **2. oinarrian** ezarritakoaren arabera.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

IV. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO-FASEAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Laguntzen azken hartzaileek, Eranskin honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute, hala badagokio, 737/2020 EDko 10. artikuluaarekin zerikusia duena barne, baldin eta Europako funtsekin batera finantzatutako jarduketa bada, jarduketa diruz lagungarriaren egikaritzapena justifikatzeko xedearekin.

- a) EEEri aurkeztutako dokumentazioaren berri emateko bidalitako jakinarazpena, laguntzen azken hartzaileak sinatua eta dagokion data adierazita.
- b) Obraren azken ziurtagiria, obra zuzendariak eta obra egikaritzeko zuzendariak sinatua, hala badagokio, inguratzaile termikoa hobetzeko jarduketaren kasuan (1. tipologia).
- c) Instalazio termikoaren ziurtagiria, instalazioaren zuzendariak edo baimendutako instalatzaileak sinatua, Autonomia Erkidegoko eskumeneko organoan erregistratua Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua betez, instalazio termikoen gaineko jarduketaren kasuan (2. tipologia).
- d) Energia-efizientziako ziurtagiria, jarduketak egin ondoren lortutakoa eta eskumeneko teknikari batek sinatua, non egiaztatzen den energia-kalifikazioan gutxienez letra 1eko hobekuntza izan dela, karbono dioxidoko emisioen eskalan neurtua (kg CO₂ /m² urtean), eta erkidegoaren edo hiri autonomoaren eskumeneko organoaren erregistroan erregistratua. Eraikina **4.8.b) Oinarrian** bildu diren bat baldin bada, proposatutako jarduketei jarraikiz azken energian gutxienez % 20 aurreztuko dela justifikatzen duen memoria.
- e) Azken erabiltzailearen erantzukizunpeko adierazpena, non adieraziko den telekomunikazio eta instalazio digitalen azpiegitura erkideei buruzko araudia betetzen dela, baldin eta jarduketari aplikatu behar bazaio eraikinen barruan telekomunikazio-zerbitzuetan sartzeko telekomunikazio-azpiegitura erkideak arautzen dituen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 11ko 346/2011 Errege Dekretuan ezarritakoa.
- f) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak, oinarri hauetan eta laguntza emateko ebazpenean eskatutakoari jarraikiz betetzen direla justifikatzeko jarduketa-memoria, egindako jarduketak eta lortutako emaitzak adierazita. Proiektua egin duen edo jarduketaren egikaritzapena zuzendu duen eskumeneko teknikari tituludun batek egingo eta sinatuko du memoria hori, jarduketak amaitzeko data ere adierazita.
- g) Laguntza-eskaeran aurkeztutako dokumentazioari jarraikiz, emandako laguntzaren xede diren jarduketak ongi bete direla egiaztatzen duen txostena, bere jardueran aritzeko eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko erakundeei eta eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko entsegu-laborategiei eskatu beharreko betekizunak garatzen dituen martxoaren 31ko 410/2010 Errege Dekretuan ezarritako betekizun teknikoak betetzen dituen kontrol-erakundeak edo kontrol-entitateak emana, edo, jarduketaren izaerarekin ondoen uztartzen den/diren espezialitatean edo espezialitateetan, Industriari buruzko uztailaren 16ko 21/1992 Legeak eta Industria Kalitaterako eta Seguratasunerako Azpiegitura Erregelamendua onartzen duen abenduaren 28ko 2200/1995 Errege Dekretuak araututako instalazio termikoen erregelamendu-eremurako gaitutako kontrol entitateak emana.
- h) Egindako jarduketekin lotutako eskaera eta/edo kontratuen kopia eta zerrenda ziurtatua.
- i) Fakturen eta faktura horiei dagozkien banku-ordainagiriaren kopia eta zerrenda ziurtatua, egindako inbertsio hautagarriari dagokionez eta aurkeztutako aurrekontuarekin eta kontratuekin bat etorritik.
- j) 50.000 eurotik beherako laguntza ematen zaien proiektuetarako, gainerako proiektuetarako dokumentazio bera aurkeztu beharko da.
- k) Laguntzaren azken hartzailea ordaintzeko egiteko eta laguntza sartzeko erabili d(ir)en edo erabiliiko d(ir)en kontu(ar)en zenbaki(ar)en titularrak dela justifikatzen duen dokumentazioa.
- l) Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak, laguntzaren azken hartzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen dutenak, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduko 22. artikuluan ezarritakoa betez.

2020ko azaroaren 6a, ostirala



Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)

Una manera de hacer Europa

m) Erantzukizunpeko adierazpena, Programa honen testuinguruan eskatutako jarduketa edo xede bererako, estatuko edo nazioarteko edozein administrazio, erakunde edo entitate publikoren eskutik beste dirulaguntza edo laguntza batzuk kobratu direla egiaztatzen duena.

n) Egindako jarduketaren argazki-erreportajea, jarduketak egin ondoren eraikinak duen egoeraren argazkiak barne, eta, hala badagokio, laguntzaren xede diren azken ekipamendu eta instalazio nagusien argazkiak barne, jarduketaren publikitate-kartela ere erakutsita. Laguntzen azken hartzailearen Interneteko webgunerako esteka eta informazioa, baldin eta horrelakorik badu, non laguntzen azken hartzaile horrek jendaurrean jakinaraziko duen Eskualde Garapenerako Europako Funtsetik eta/edo, hala badagokio, dagokion Europar Batasuneko tresnatik lortu duen laguntza, eragiketa labur-labur deskribatuz, emandako laguntza-mailari dagokion neurrian, helburu eta emaitzen berri emanez, eta Europar Batasunaren finantza-laguntza nabarmenduz.

o) Laguntzen azken hartzailearen jarduketaren kontratazio-prozesuaren gaineko justifikazio-dokumentazioa.

p) Lotutako transakzio guztietarako kontabilitate berezi eta desberdindu bat dagoela justifikatzen duen dokumentazioa: diru-sarrera eta ordainketak, hala badagokio, laguntzen sarrerak, hornitzaileentzako ordainketak eta gainerakoak adierazita.

q) Erantzukizunpeko adierazpena, laguntzen azken hartzaileen justifikazioaren aurrekoa, honako hauek bermatzen dituen: jarduketak kontratatze prozesua; lotutako transakzio guztietarako kontabilitate berezi edo desberdindu bat izatea; estatuko eta erkidegoko arauak betetzea horrelako jarduketei aplikatu beharreko aukera-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren gaineko betekizunei dagokienez; estatuko eta erkidegoko ingurumenari eta garapen jasagarriari buruzko arauak betetzea, eta iruzurraren aurkako neurri eraginkorrak aplikatzea, neurrizkoak laguntzaren xede den proiektuaren kudeaketa-eremuan (Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutuaren edo EEEren webgunean eskuragarri egongo den ereduaren arabera).

Nolanahi ere, behin jarduketa gauzatu eta justifikatzeko epea amaitu denean, egindako gastuen zati bat baino ordaindu ez bada, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuko da, dagokion laguntza jasotzeko eskubidea galtzeari dagokionez.